

## Kultura

Javier Vargas bluesaren gitarrista handiak zuzeneko kontzertua eskainiko du Plateruenean, bihar > 11



## UDAKO GEHIGARRIA



## “Durangaldeko etorkinak lehenengoz irten gara kalera”

Voz Africana plataformak Bilbon gertatutako emakume etorkin bien hilketak salatzen manifestazioa deitu zuen Durangon, joan zen domekan. Isaac Antwi ghanatarra plataformako presidentea da > 8



## Iketzeko beharginek akordioa sinatu dute inbertsore berriagaz > 2

Abadiñoko Iketz enpresako langileek akordioa sinatu zuten martitzenean. Bi aldeek adostutakoaren arabera, 13 langile hasiko dira lanean hiru urterako lan bermeagaz. Gainerako 47 beharginak lan poltsa batean sartuko dira, eta kontratazio beharraren arabera joango dira integratzen. Enpresa talde berean diharduen San Eloy (Elorrio) ez da gauza bera gertatu. LAB sindikatuak azaldu duenez, inbertsore berriak ez du zehaztu San Eloyrako zer eskaintza daukan. Abadiñoko Metal Performers enpresako jabea da inbertsore berri hori.



**CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)**  
Doako irakaskuntza ofiziala  
**AURREMATRIKULA**

### IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania
- II. GRADUA (Lehen Hezkuntza)
- DBHko graduatua

### IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide proba
- Goiko zikloetarako sarbide proba
- Informatika (hasiera maila)
- Euskara / ingelesa (hasiera maila)

Beste jarduerak batzuk: kultur ekitaldiak, irteerak...

### Matrikula egiteko ordutegia:

Astelehen-ostegun: 09:00-12:00/15:30-20:00. Ostiraletan: 09:00-12:00

**MATRIKULA ZAITEZ**  
94 681 42 53  
www.epadurango.hezkuntza.net

IRAKASKUNTZA ARAUTUA:  
maiatzaren 15etik ekainaren 21era  
EZ-ARAUTUA: ekainaren 17tik 21era

## Iurreta > 2

5,4 milioi euroko aurrekontu "saneatua" onartu du udalak

## Mañaria > 4

Bandera espainiarra ipini ostean, ikurrina omenduko dute bihar

## Otxandio > 6

Erremerariaren gaineko azterketa egingo du Iñaki Pererak

## Mallabia > 4

Lipduba grabatuko dute Gazte Egunaren egitarauaren barruan

# Herririk herri

## > DURANGALDEA

### Iketzeko beharginek akordioa sinatu dute inbertsore berriagaz

Oraindik zehaztu gabe dago inbertsoreak San Eloyrako duen eskaintza



Iketz eta San Eloyko beharginak, protesta batean.

#### > MARKEL ONAINDIA

Abadiñoako Iketz enpresako beharginek enpresaren inbertsore berriagaz akordioa sinatu zuten martitzenean. Hamahiru behargin hasiko dira lanean, hiru urterako lan bermeagaz. Gainerako 47ak lanpostu batean sartuko dira, eta kontratazio

beharraren arabera joango dira integratzen. Soldatak ez jaisteko klausulak ere ezarri dituzte. San Eloy ez da gauza bera gertatu.

Egoeragaz ez ei daude pozik LABen, izandako lanpostu gale-ragatik. Baina, beharginen borroka harro agertu da. Greban hasteko deialdia eginga ei zuten;

uste dute borrokari eskerrak lortu dituztela gutxieneko esku-bideak. Enpresa komiteko bost ordezkariak LABenak dira.

#### “Saldu egin dira”

LABek enpresa bietan jarrera berdina mantendu duela esan du, baina San Eloy ez dauka gehiengorik. Azaldu du inbertsoreak ez duela guztiz zehaztu zein den San Eloyrako daukan eskaintza. Edozelan ere, enpresako beharginek asanbladan erabaki dute inbertsorearen proposamena onartzea. San Eloyko beharginak “saldu egin dira”, LABen ustez: “Larriena, ELAk eta CCOOK jarrera egoista eta indibidualista honi emandako abala da”. Presioa eta mehatxuak leporatu dizkie: “Inbertsore berriaren aurrean belaunikatzeagaz nahikoa ez, eta Iketzeko plantillak bere eskubideen alde borrokatzea eragotzi gura izan dute”.

Abadiñoako Metal Performers enpresako jabea da inbertsore berri hori.

### Idazkariorde lanpostua balio gabe uztea eskatuko dute

#### > A.B.

Idazkariordea udaletxeko lanpostuen zerrendatik kentzeko espediente abiaturako dute Bilduk eta PSE-EEk. Jaurlari-tzara bideratuko dute eskaria, lanpostua balio gabetzeko.

Udal aurrekontua lantzerakoan gai horretan bat etorri dira PSE-EE eta Bildu. Biek ala biek aurkeztu zuten zuzenketa. Hala ere, PSE-EEk azaldu lez, lanpostua sortzeko tramite bera bete behar dute, baina alderantziz. Gaia hurrengo Jaurbide Batzordean lantzea eskatu du Bilduk. Jaurlari-tzak erantzutean dagozkien pausoak emango dituzte.

Idazkariordearen lanpostua 2010eko abenduan sortu zen. Bilduk aurrekontu eztabaidan esan duenez, lanpostu horrek udalari “onurarik ez” eta gastua eragiten dio. Postu bat mantentzeko, berorren beharra izan behar dutela dio.

#### Antolamendu arazoa

Aurrekontua “oso zorrotza” da PSE-EEren ustean; “egoerari dagokiona”. Eta PPK “arduragaz” jokatu gura izan du. Abstenitu egin dira. Bilduk udaletxeko “antolaketa arazoak” aipatu ditu. Organigrama “argi” eza eta aurreikuspen falta kritikatu ditu: “Neurriak hartu behar dira kolapsora ez heltzeko”.

#### INBERTSIOAK

- Maiztegi herri eskolako patioa asfaltatzeko: 50.000 euro
- Alluitzetik (Durango) Maspe kalera inok lanak: 35.000 euro
- Energia eraginkortasuna: 20.000 euro
- Zaratari buruzko azterketa: 10.000 euro

## > IURRETA

### la 5,4 milioi euroko aurrekontu “saneatua” onartu du udalak

Iazkoagaz alderatuta, %13,5 jaitsi da aurrekontua; inbertsioen atala, berriz, erdira mugatu dute

#### > AITZIBER BASAURI

Udal aurrekontu “orekatua” eta egoera ekonomiko orokorraren barruan “saneatua” onartu dute. Zorrik sortu gabe, ia 5,4 milioi euro dituzte; iaz baino %13,5 gutxiago. Inbertsioarako dirua ere erdira jaitsi da: 507.000 euro.

Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, “murrizketa garaian” zerbitzuei eutsi gura izan diote, gastua arrazionalizatuta. Hartara, gastu orokorra %3,5 jaitsi dute, eta gastu arrunta %7,35. Alkatearen soldata, berriz, %5 jaitsiko da, eta langileen ordainketak berdin mantenduko dira.

Hala ere, kirola egiteko laguntzarako atala 1.650 eurotik 21.000ra igo dute. Igerilekuetarako ez ezik, herrian eskaintzen ez den beste kirol azpiegiturarako ere bideratuko da laguntza.

## > MAÑARIA

### Ikurrina omenduko dute, Espainiako bandera udaletxean ipini ostean

Espainiako bandera ipintzea inposaketa izan dela diote; “ez da izan udal ordezkari gogoia”

#### > M. O.

Madrilik etorritako agindua bete dute Mañarian ere: Espainiako bandera ipini dute udaletxean. Atzeko aldean kokatu dute. Behartuta eta gogoz kontra hartutako erabakia izan da. Inposaketa izan dela diote: “Hori ez da izan udal ordezkari gogoia”. Iazko maiatzean heldu zen agindua Espainiako gobernuaren ordezkarietatik, eta udalak ez ikusiarena egin zuen. Baina, handik lasterrera horren zergatia eskatu zioten. Udalak errekurtsioa ipini zuen, eta 2013ko martxoan heldu zen azken ordena.

Egoeraren aurrean, ikurrinari omenaldia egingo diote bihar. Arratsaldeko 19:00etan

izango da ekitaldia, plazan. Gaur egun eta iraganen zinegotzi izandako hainbatek egin dute omenaldirako deialdia. Gainera, etxeetako balkoietan ikurrinak ipintzeko eskaera ere egin dute.

#### 220 sinadura

Ekimena bultzatu duten zinegotzi horiek batzarra egin zuten bandera ipintzeko aginduaren harira, eta hortik irten ziren ideiak. Azken asteetan sinadura bilketa bat egin dute, eta 220 sinadura batu dituzte. Horietatik 118 dira mañariarrenak.

Horrez gainera, bultzatzaileen izenean mozio bat landuko dute gaurko udalbatzarrean.

### Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute bihar, 41. biderrez

#### > M. O.

Gerediag Elkarteak eratu-ta, Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute bihar, Mañarian. Jada 41. edizioa izango da, azaldu dutenez. Gerediagak gogorarazi du Dantzari Dantza desagertear zegoela XIX. mendean amaieran, Durangaldeko herri batzuetan bakarrik mantentzen zela. “Gaur egun, pozgarria da gure eskualdeko herri gehienetan dantza berreskuratuta dagoela ikustea”, esan dute Gerediagako ordezkariak.

Bihar, 19:00etan kalejira egingo dute ezpatadantzariak, plazara heltzeko. 19:30ean hasiko dute saioa. 21:30ean afaria egingo dute, eta ostean, erromeria izango da Ansorregi taldeagaz.

## > ATXONDO

### “Gogotsu sartu da” jende berria Gazte Asanbladan

Oso ahul egotetik asteroko batzarretan 25 bat lagun batzera igaro da Gazte Asanblada

#### > JOSEBA DERTEANO

Etorkizunari itxaropentsu begiratzen dio gaztetxeko Gazte Asanbladak. Oso ahul egotetik egueztenero egiten dituzten batzarretara 25 bat lagun batzera pasatu dira: “Jende berria sartu da, edo aspaldian utzita zuena. Dinamika bat hartu dugu, eta jendea gogotsu ikusten dugu”, adierazi du Ainhoa Kaltzakorta gaztetxeko kidea. Biziberritze prozesu hori Gazte Asanbladan zeuden kideen

ahaleginaren ondorioa da; hain zuten, Berpizte Eguna antolatu zuten orain aste batzuk helburu horrexegaz: “Afaritara 70 lagun batu ziren eta kontzertuetan ere jendea egon zen. Balorazio positiboa egin dugu”.

Oraingoan, barne funtzionamendua antolatzeke erabili dituzte batzarrok, baina jaietara begirako ekitaldiak prestatzen ere badabilta. Gainera, eguen iluntzetan bideo emanaldiak egiten hasi dira.

**> DURANGO**

# Trenbideko eremuan parke luze bat egitea gura dute ikasleek

Geltokitik San Faustorako kilometroan zer egin aztertzeke, parte-hartze prozesua egin du udalak

**> MARCEL ONAINDIA**

2012ko abenduaren 17an inaurguratu zuten Durangoko tren geltoki berria, eta geroztik tren lurpetik doa. Baina, trenbidea ez dute kendu, eta herria erdibitzen jarraitzen du. Geltokitik San Faustorako kilometroan zer egin aztertzeke, partaidetza prozesua egin du udalak Kurutziaga, Jesuitak, Nevers eta San Antonio-Santa Rita ikastetxeetako ikasleekin. Bada, parke luze bat egitea proposatu dute ikasleek. Hori izan da ondorio nagusia.

165 ikaslek parte hartu dute prozesuan, sei taldetan banatu-

ta. Kilometro bateko azalera hori sei eremutan zatitu, eta talde bakoitzak eremu bat diseinatzeko ardura eduki du. Ondoren, sei ideiak batu eta proposamen osoa egin dute. PH+ enpresako aholkulariek batu dituzte ondorioak. "Parke lineal eta ekologiko" bat egitea da ideia nagusia.

EAEko herrietan ez ei dago halako parke luzerik. Gune desberdinak izango lituzke: kioskoak, wifi guneak, rokodromoa, jateko mahaiak... Musika Eskola eta Landako artean, aire zabaleko espazio eszenikoa eraikitzea proposatu dute, esaterako.



Ikasleek trenbidean proposatutako etorbide edo parke luzea.

Parkeak herria batuko luke, erdian berdegune handi bat egonda. Celia Imaz aholkulariak esan du gazteentzako espazio falta igarri dutela ikasleek, eta horren arabera egin dutela lan.

Udalak jaso du proposamena, eta orain bere esku dago proiektua onartu edo ez.

**Pasaguneak zabalik**  
Bestalde, amaitu dituzte trenbi-

dean hiru pasagune zabaltzeko lanak Uribarri-Landako, Matxinestarta-Ibaizabal eta Faustebide-Faustebekoa tartetan. Herri-tarrak badabilta erabiltzen bide berri horiek.

# Guardia Zibilari "alde hemendik" esateko kontzentrazioa bihar

Alde Hemendik mugimenduak 19:00etarako deitu du kontzentrazioa, Montorretako kuartelean

**> M.O.**

"Indar okupatzaileen presentzia eta kontrolak desagertzea, errepresio mota guztiak kentzea eta talde militar eta polizial espainiarrek eta frantziarrek alde egitea". Eskaera horiek dauzka biharko mobilizazioa deitu duen Alde Hemendik mugimenduak. Baina, euren helburu horietara ailegatzeko, uste dute beharrezkoa dela herritarren indarrak batzea. 19:00etarako deitu dute kontzentrazioa, Guardia Zibila Montorretan daukan kuar-

telaren aurrean, eta 19:30ean manifestazioa egingo dute leku berean hasita. Euskal Herriko kuartel guztien aurrean egingo dituzte protestak bihar.

Mugimendu berria da Alde Hemendik. Bertako kideek hainbat eraso leporatu dizkie guardia zibilei, eta adierazi dute egoera aldatu behar dela: "Urte askoan, milaka eta milaka euskal herritar izan dira torturatuak, erailak, atxilotuak eta mehatxatuak, Espainiako eta Frantziako estatuaren inpunitate osoz".

**Udalaren eskaera**

Iazko ekainean, udalak mozio bat onartu zuen, Guardia Zibila Durangotik joateko eta kuartelaz jabetzeko eskatuz. ETaren borroka armatua amaituta, Polizia Nazional eta Guardia Zibila presentzia murrizten joateko sasoia dela zioen mozioak.

Alde Hemendik mugimenduko kideek hainbat eraso leporatu dizkie guardia zibilei

# Lankidetzaren hitzarmena sinatu dute enpresen elkarteak eta Asepeyok

Hitzarmenari esker, komunikazio eta formazio saioak landuko dituzte euren bazkideentzat

**> M.O.**

Orain arte era naturalean egiten zutena formalizatzea. Helburu hori dauka atzo Durangaldeko Enpresen Elkarteak (DEE) eta Asepeyo mutua sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenak. Bien izenean, Estibaliz Lopezek eta Igor Sotak egin zuten sinadura ekitaldia. Hainbat urte dira elkarlanean dabilta-

la, eta aurrerantzean hartueman ofiziala edukiko dute.

Hitzarmenaren ondorioak azaldu zituzten. Esaterako, komunikazio eta formazio saioak garatuko dituzte euren bazkideentzat. Sotak adierazi zuen Asepeyok 4.500 behargin babesten dituela eskualdean.

Gaur egun, 55 enpresa daude DEE elkartearen.



Sota eta Lopez, hitzarmena sinatzeko unean.

**> IZURTZA**

# Toñi Jimenezen eskutik kakorraz ikastaroa abian, uztaile arte

**> JOSEBA DERTEANO**

Jubilatuaren lokalean garatzen duten Ostegunetako Klubaren barruan, kakorraz ikastaroa egingo dute ekainean eta uztailean. Harrera ona badu, irailtik aurrera ere jarraitzeko asmoa dutela adierazi du Toñi Jimenez izurtzarrak, ikastaroko gidariak.

Eguenero, 17:00etatik 19:00etara, 25 eta 65 urte bitarteko hamar bat lagun batzen dira kakorraz lanak egiten: "Konplikazio handiegirik gabeko lanak egiten hasi gara, eta parte-hartzaileak esperientzia hartzen doazen heinean, trebezia handiago eskatzen duten lanak egiten joango gara", adierazi du Jimenezek. Ikastaroan parte hartu gura duenak ez du izena eman beharrik, nahikoa du eguen arratsaldean jubilatuen lokalera joatea.



**Durango Poliklinika estreinatuta berri dugu, DURANGOKO DIAGNOSTIKO ZENTRO berria irekitzean. Bizkaiko erradiologo esanguratsuez osatutako taldeak dakarren esperientzia zabala da zentro honen berme nagusia.**

## EREMU HANDIKO ERRESONANTZIA MAGNETIKOA

*Durangaldeak badu jada, aurrenekoz, Erresonantzia Magnetikoaren Zerbitzua; teknologiarik aurreratuenaekin, diseinu konpaktuko imanarekin, eta tunel ultra labur batekin (145 cm), beste erresonantzia batzuetan sor daitekeen klaustrofobia sententzia saihesteko.*

**MUTUA NAGUSIEKIN ARI GARA LANEAN!**



**Intxaurrondo kalea, 19. DURANGO**  
(karmeldarren komentu zaharrean)

**Tel.: 94.466.86.68**  
[oddurango@gruposcanner.biz](mailto:oddurango@gruposcanner.biz)

**> MALLABIA**

# Mallabiko kaleak Gazte Eguneko lipdubaren eszenatoki izango dira

Bihar arratsaldean grabatuko dute, Izar Gorriren urteurreneko abestiarekin



Zapatu gauean Multa, Inedituak, Katekesis eta Eromen taldeek kontzertua eskeiniko dute.

**> JONE GUENETXEA**

Mallabiko Ernai taldeak Gazte Eguna antolatu du zapaturako. Ekimenaren hirugarren edizio honetan antolatzaileek jakitera eman dutenez, taldea ezagutzera ematea eta gazteak batzea dira helburuak.

Ekimenaren hirugarren edizio honetan taldea ezagutzera ematea eta gazteak batzea dira helburuak

Mallabiko gazteek egun oso-rako egitaraua antolatu dute. 12:30ean trikipoteoan abiatuko dira tabernarik taberna, Gorka Maiz eta Endika Igarzabalekin. Eguerdian, bazkaritarako elkartuko dira plazan. Txartelak Herriko tabernan eta Bastidan daude salgai, 10 euroren truke.

**Libdub herrikoa**

Izar Gorri elkarteak 20 urte bete-ko ditu urrian. Urtemuga gogora ekartzeko Mallabiko elkartearentzako abestia sortu du Tri-kizio taldeak. Abesti hori baliatuta, libdub berezia grabatuko dute Gazte Egunean. 17:00etan ekingo diote grabazioari. "Herriko elkarteak protagonista izango diren arren, norbanakoak parte hartzera gonbidatuta daude", diote gazteek.

Gauean Multa, Inedituak eta Katekesise taldeek kontzertua eskainiko dute Herrikoan eta Bastidan. Ondoren, erromeria eskainiko du Eromen taldeak.

Herriko elkarteak protagonista izango diren arren, norbanakoak parte hartzera gonbidatuta daude

# Beñat Ugartetxea eta Nerea Elustondo, Goitako jaietan

Datorren asteko barikuan ipiniko dute donien-atxa

**> J.G.**

Mallabiko Goita auzoan San Juan jaiak ospatuko dituzte datorren astean. Barikuan, donien-atxa ipiniko dute, eta gero, afaritan batuko dira (txartelak salgai Mallabiko tabernetan). Afalostean, Beñat Ugartetxea eta Nerea Elustondo bertotan ariko dira. Ekainaren 22an, arratsaldean umeentzako poniak jarriko dituzte. Txinga eroate eta tortilla

txapelketarekin jarraituko dute. Gauean, asto probak eta Irazola eta Iñigo Aurrekoetxearen arteko giza proba izango dira. Ostein, herrikoentzako irrintzi eta adar jotze txapelketa. Domekan, goizeko 11:00etan meza izango da, eta gero, Gazte Alairen emanaldia. Arratsaldean, herri kirolen txanda izango da. Ekainaren 24an, 12:30ean meza izango da, eta arratsaldean, briska txapelketa.

**> BERRIZ**

# Legañoko azterketak berrartuko ditu udalak

Lanak gelditu ez egoteko dirua ipiniko du urtero



Azken urte bietan dirulaguntza barik, gelditu egon dira arkeologia lanak.

**> AMAIA UGALDE**

Legañoko San Pedron hasitako ikerketa lanetarako Aldundiak dirulaguntzarik eman ez duela-eta, urtero lan horietara 10.000 euro bideratzea erabaki du Berrizko udalbatzak. Diru horrekin udaleko langileek ingurua garbitzea, eta teknika-riek apurka-apurka prospekzio-ko eremua zabaltzea da asmoa.

"Urtero gutxieneko konpromisoa hartu gura dugu, lanak gelditu ez daitezen", azaldu du Orland Isoird alkateak. Uda partean hasiko dira bertan hazitako belarrak kentzen, eta lan teknikoa berriro hartzen. Isoirden berbetan, "dirulaguntza barik ere horretan gabiltzala erakutsi gura diegu erakundeei".

# Euskara ikastaro trinkoak eskainiko dituzte udan

**> A.U.**

Ekainaren 24tik uztailearen 19ra AEK-k ikastaro trinkoak eskainiko ditu Berrizen, lehengo, bigarren eta hirugarren hizkuntza eskakizunak prestatzeko. Ekainaren 19ra arte eman daiteke izena.

Ikastaro trinkoetan bost orduko eskolak emango dituzte egunero, 08:30etik 14:00etara, atsedenaldira. AEKtik jakin eragin dutenez, Berrizko jaietan, uztailearen 1ean eta 2an, jai edukiko dute.

Udalak dirulaguntza emango du ikastaroa ordaintzeko, eta asistentzia betetzea da beka emateko baldintza. Informazio gehiagorako, [berriz@aek.org](mailto:berriz@aek.org) helbidera idatzi daiteke.

# Udako ekintzak eta asteburuko irteera DBHkoei zuzenduta

**> A.U.**

Uztailearen 8tik 19ra egitarau berezia prestatu dute Pagotxa elkarteak eta udalak DBHko ikasleentzat. Hamabostaldi osoko ekintzetan parte hartzeko aukera egongo da, bai eta

ekintza solteetan jardutekoa ere; rokodromoa eta frontenisa, surfa, Deba eta Zumaia arteko ibilbidea, igerilekua, snorkel eta piragua...

Ekintza horiez gain, uztailearen 17tik 19ra asteburu-pasan joango dira kanpin edo aterpetxe batera.

Datorren eguaztenean egongo da informazioa eskuratzeko aukera. Pagotxak gurasoentzako batzarra egingo du 20:00etan kultur etxean.

# Eskualderako anbulantzia medikalizatua eskatu dute

**> A.U.**

Durungaldeko beste herrietan legez, PSE-EEK bultzatuta, eskualderako anbulantzia medikalizatua eta erizain postu bat gehiago eskatzeko mozioa

landu dute. Testua Bildu eta PSE-EEKo botoekin onartu dute; EAJ abstenitu egin da. Bilduk proposatutako puntu bi ere onartu dituzte, Landakoko arretaguneko langileei elkartasuna adieraztea, tartean.

Orland Isoird alkateak azaldu du EAJ eskatutakoagaz ados dagoela, baina EAJk batzarrak izan dituela arazoa aztertzeko; "horregatik ez dugu mozio baten beharra ikusten".

**NetGenie**

**DENA BATEN**

1. Zure seme-alabek Interneten egiten dutena jakitea
2. Interneterako sarbidearen kontrola ordutegiaren arabera
3. Egokiak ez diren webguneetarako sarbidea blokeatzea
4. Web aplikazioen erabilera kontrolatzea
5. Zure ordenagailua kanpoko mehatxuetatik babestea

**+ ANTIBIRUS LIZENTZIA**

~~124,5€~~ **109€\***

\* Webgunean sartu eta kodigoa sartuta balidatutako promozioa

**Kodigoa: ANBOTO**

[www.elaia.es/netgeniehome](http://www.elaia.es/netgeniehome)

**elaia IT**

Montorreta Ind. E11, 2L  
Durango - 94 640 98 98  
[www.elaia.es](http://www.elaia.es)

eLAIA Information Technology S.L.



# BEGIRA'13

Photo Festival



**DURANGO**

**13.06.25**

**13.07.14**

[www.begiraphoto.com](http://www.begiraphoto.com)

*kinua*  
argazki elkarte



**> ELORRIO****Antzinako Ogibideen Azoka eratu dute seigarrenez****> M. O.**

Bihar egingo dute Antzinako Ogibideen Azokaren seigarren edizioa San Agustinen. Goizeko 11:00etatik aurrera, hainbat erakusketa egongo dira aukeran, eta bazkaria ere egingo dute. Olazar auzo elkarteak eratzten du ekimen hau urte birik behin.

Errementariak, buztinlariak, upelgileak, zurginak, eskribauak... Lehenagoko denboretako hainbat ofizio berriro ikusi ahal izango dira bihar, Elorrioko San Agustinen. Aurten ere mozo-

Lehenagoko denboretako hainbat ofizio berriro ere ikusi ahal izango dira bihar, Elorrioko San Agustinen

rrotuko dira hainbat auzotar, eta ukendugintzan ibiliko dira lehenengo. 12:30ean eliza bisitatuko dute, eta 13:00etan txerri-okelazko pintxoak emango dituzte. Gero, bazkarian batuko dira. Arratsaldean hegazti harraparien erakustaldia egingo dute.

**> OTXANDIO****Errementarien gaineko azterketa egingo du Iñaki Perera historialariak**

Herriak errementaritzagaz izandako hartu-emana jaso gura du udalak, Eusko Ikaskuntzaren bidez

**> J.D.**

Otxandio errementari askoko herria izan da. Herriko bertako burdinolatik ateratako zein kanpotik ekarritako materialagaz kateak, ferrak eta iltzeak egiten zituzten errementariak, besteak beste. Orain, herriak errementaritzagaz izandako lotura sakon hori argitara atera gura du udalak, eta horretarako, errementarien inguruko azterketa bat abiatzea erabaki du.

Eusko Ikaskuntzari agindu diote azterketa hori egiteko, eta Eusko Ikaskuntzak Iñaki Perera historialariaren esku utzi du. Batez ere, artxiboko lana egingo du, baina herritarrekin ere egongo da, azterketa osatzeko baliagarria izan daitekeen informazioa batzeko. Esaterako, orain urte batzuk, sasoi bateko sutegia aurkitu zuten Vicinay S.A. enpresan eta, enpresako jardura batzuen ondorioz desagertu ez zedin, herriko talde batek desmuntatu eta

gorde egin zuen, egunen batean azpiegitura historiko baliotsu hori herriko beste txokoren batean muntatu eta herritarren eskura jartzeko. Atzo, herriko talde hori Iñaki Pereragaz batzartu zen, sutegi horren gainean daki-tena kontatzeko.

Irailean hasi eta 2014ko martxora arte luzatuko den azterketaren ondoren, informazio hori guztia zelan kudeatu erabakiko du udalak; hau da, zelan gizartearatu. Udaleko baliabide ekonomikoaren arabera egingo dute.

**Aurretik ere elkarlanean**

Eusko Ikaskuntzak eta udalak hitzarmen bat dute, eta honako hau ez da Otxandiorako egingo duten lehenengo azterketa. Aurretik, Zigor Olabarrriak gerra zibilaren eta bonbardaketaren gaineko azterketa bat egin zuen. Ondoren, bonbardaketaren 75. urteurrenean liburu bat argitaratu zuten.

**Bilduren ustez, igerilekuen proiektua "lekuz kanpo" dago**

Udalak parte-hartze prozesua hasiko du igerilekuen inguruan galdetzeko

**> MARKEL ONAINDIA**

Bildu ez dago ados EAJk aurkeztutako kanpoko igerilekuen proposamenagaz. Hori azaltzeko, prentsaurrekoa eman zuten koalizioko zinegotziek martitzenean. Antza denez, 1,6 milioi euroko aurrekontua edukiko luke instalazioak eraikitzeak soilik, eta Bilduren arabera, EAJk ez dauka bideragarritasun planik.

Proiektuan murgiltzea larria da Idoia Buruagarentzat: "Gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoan, horrelako proiektuak lekuz kanpo daude".

2013ko aurrekontuetatik aparte geratu zen proiektua, lehenengo, herritarren iritzia jakin guran. Bada, udalak parte-hartze prozesua hasiko du. "Elorrioren inoiz egin ez dena",

esan du Ana Otadui alkateak (EAJ). Etxerik etxe esku-orriak banatuko dituzte, Iturrin aurkezpena egingo dute, eta gero, plazan mahaia ipiniko dute. "Gazteentzako ere, tailer parte-hartzailea antolatuko da". Baina, Bilduren ustez, marketina da, parte-hartzea beharrean. Umeei proiektua azalduko dietela kritikatu du Fernando Gar-

ciak: "Lotsagarria eta larria iruditzen zaigu igerilekuen herri-eskaera saldu ahal izateko, gure seme-alabak erabili nahi izatea. Xantaia emozionala jardun politikoko bihurri eta arriskutsua da". Haren ustez, EAJk badaki zelako proiektua sortu nahi duen, eta horregatik galdetu du ea zertarako egingo duten prozesua.

Bestalde, Jon Ander Graciak adierazi du kirol ikuspuntutik ez dutela lehentasunezko zatitza egitasmoa. Bere esanetan, herriko kirolaren plan estrategikoa egin duen enpresako arduradunak esan die ez lukeela beste azpiegiturarik egingo. Xabier Orbegozok esan du hiri-gintza aldetik ere beste hainbat egitasmo ikusten dituztela garrantzitsuago: auzoetako ur eta saneamendu sareak, Belengua edota Goietako urbanizazioak...

**EAJren erantzuna**

Obrak hasiko direla esaterik ez dagoela erantzun du Otadui: "Ondorioak aterako dira, eta orduan erabakiko da, herritarrek esandakoaren arabera, igerilekuak egin edo garai hobeak itxaron". Gogorarazi du hauteskunde programan proiektu hori zeukatela, baina bere ustez, "ezinbestekoa da ahalik eta parte-hartze handiena bermatzea". Esan du ahalik eta informazio gehiena eman gura dutela.



Bildu udal taldeko zinegotziak, martitzenean, udaletxean emandako prentsaurrekoan.

**> GARAI****San Juan jaiak Momoition, hurrengo asteburuan****> M.O.**

Trumoitte kultur elkarteak prestatuta dauka aurtengo San Juan jaietarako egitaraua. Hurrengo asteburuan ospatuko dituzte jaiak, Momoitioko San Juan ermitaren bueltan. Hilaren 22an, 23an eta 24an izango dira ekintzak.

Zapatuan, afari herrikoia-gaz hasiko dute jaiak. 21:30ean izango da, eta ostean erromeria egongo da Laja II eta Larrañaga bikoteagaz. Afarian apuntatzeko, hilaren 19a, eguaztena, ipini dute epemuga. Udaletxean eman behar dute izena interesdunek. Domekan, 10:30ean mezagaz hasiko da eguna, eta horren atzetik dantzariak etorriko dira. Bertsolariak ere girotuko dute eguerdia. Arratsaldean, ume zein helduentzako moduko jolasak eskainiko dituzte. 20:00etan donien-atxa ipiniko dute San Juan bezpera islatzeko, eta ostean, sua piztuko dute. 24an, San Juan egunez, meza egongo da 12:00etan.

**> ZALDIBAR****Hiri Antolamendurako Planaren parte-hartze prozesuan barneratuta**

Herriaren indargunez jardun zuten atzoko eskolako saioan parte hartu zuten zaldibartarrek

**> I.E.**

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzeko apirilean abiatutako *Zaldibar eitten* parte-hartze prozesuaren lehenengo faseko laugarren saioa egin zuten atzo. *Zaldibar berba eitten* izenburua dauka parte-hartze prozesuko lehenengo fase honek, eta herria zelan dagoen eta herritarrek zelan bizi diren aztertze burutu dute.

Ekainaren 29ko festagaz borobilduko dute parte-hartze prozesuaren lehenengo fasea

Zaldibarko paisaiaren, bertako aberastasun naturalaren eta jardun kulturalaren ingurukoa izan zen atzoko hausnarketa. "Udalerrriak dituen

indarguneak identifikatzea eta baloratzea" izan zuten atzo helburu, "eta bertako giza baliabideak eta baliabide naturalak baloratzea".

Zaldibarren etorkizunean aktiboki parte hartu gura duten herritarrek batu dira orain arteko lau batzarretan, datozen urteetan herriko lurzorua zelan antolatuko den erabakitze prozesuan euren ekarpenak egiteko. Hirigintzari, arlo sozio-ekonomikoari eta ingurumenari loturiko gaiak buruz jardungo dute uda osteko saioetan ere.

Ekainaren 29an borobilduko dute parte-hartze prozesuaren lehenengo fasea, 11:00etan. Aurreko saioetan landutako gaiak eta foroetan herritarrek egin dituzten proposamen eta ekintzak kalera aterako dituzte egun horretan. Festa giroan egingo dute uda aurreko azkenengo saio hori.

**> DURANGALDEA ASTEON****Andres Granados hil da, Musika Bandako presidentea**

Durangoko Tabira Musika Bandako presidentea, Andres Granados, hil zen eguen goizaldean. 54 urte zeuzkan, eta gaixotasun larri baten ondorioz hil zen.

Gaur izango da musikariaren omenezko hileta, arratsaldeko 19:00etan, Andra Mariko basilikan.

**Basque Culinary Center-eko kideak, Txintxirri ikastolan**

*Ongizatea janaria prestatuz* ekimenaren barruan, Basque Culinary Center-eko ordezkariak egon dira Txintxirri ikastolan. Elikadura osasungarria indartu eta sasoko produktuak kontsumitzea izan dira helburuak, besteak beste. Aitzol Zugasti sukaldariak eman dizkie azalpenak ikasleei eta gurasoei.

**Estibaliz Parra irabazle sormena lantzeko Maristen lehiaketan**

Maristak ikastetxeak sormena, konfiantza eta ilusioa landu eta hirueleaniztasuna sustatzeko antolatu duen III. Konkrealusivity Lehiaketa Zornotzako Karmengo Ama ikastetxeko Estibaliz Parrak irabazi du. Hainbat ikastetxetako DBH 4. mailako ikasleek euskara, ingelesa, matematika eta biologiaren inguruko probak izan dituzte.

**Dendak Bai elkarteak Expobodas azoka antolatu du Landako Gunean**

Durangaldeko Dendak Bai merkatarien elkarteak Expobodas azoka antolatuko du, lehenengo biderrez, azaroaren 16an. Durangaldean eztegu eta zeremonia gaiak eskaintzen dituzten merkataritza establezimenduek parte hartuko dute. Horretarako aukera izango dute baita Dendak Bai elkarteko bazkideek eta bazkide ez direnek ere. Honako webgunean eman daiteke izena: [comercio@masdendak.com](mailto:comercio@masdendak.com).

**> ABADIÑO****BBKren babesik barik antolatu du Urkiolako batzordeak azoka aurten**

Behelaino eta euripean ospatu zuten San Antonio eguna atzo, Urkiolan

**Ke detektoreak ipini dituzte 80 urtetik gorakoak beste 18 etxetan**

80 urtetik gorakoak bizi diren 18 lagunen etxeetan 26 ke detektargailu ipini ditu Abadiño-ko Udalak. Sute eta istripu arriskua gutxitzeko helburuz ipini dituzte, 80 urtetik gorakoak baitira halako istripuak izateko arrisku handiena duen gizarte taldea. Orain bi urte, 243 ipini zituzten herriko 180 etxebizitzatan.

Sentsoreak ipintzeko, 80 urtetik gorako jendea bizi den 20 etxe inguru ikuskatu dituzte udalak bidalitako teknikariek.

**Gidarien kexa eragin dute Muntzarazko semaforoek**

Hainbat herritarrek helarazi dituzte Muntzaraz auzoko semaforo berriei buruzko kexak udalera



Oso tarte laburrean hainbat semaforo ipini ditu Bizkaiko Aldundiak.

**> ITSASO ESTEBAN**

Euritakoa esku batean, eta azokan erositako produktuak bestean, ehundaka lagun batu ziren Urkiolan atzo, San Antonio eguna ospatzeko. Goizetik, ganadu eta nekazaritza produktuen azoka izan zen bertan, eta trikitilariak ere jardun zuten giroa sortzen. Urkiolako santutegiko batzordeak antolatzen du San Antonio eguneko baserriko salgaien azoka: BBKren azken urteetako babesik barik aurten. Hain zuzen, "BBK-k San Antonio azokari laguntza kendu izana" kritikatu du Jose Luis Navarro alkateak. Hala ere, "San Antonio egunak bere xarmari eutsiko diola" sinistuta dagoela ere esan du.

Goizeko 10:00etatik 13:00etara, orduro egin zuten meza san-

tutegian, eta Mario Izeta Bilboko Gotzainak jardun zuen 12:00etako meza nagusia gidatzen. Iurretako abesbatzaren emanaldia ere gozatu zuten atzo Urkiolara bertaratu zirenek, eta Angel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsolarien saioa ere entzungai izan zen, ondoren.

BBK-k San Antonio eguneko azokari "laguntza kendu izana" kritikatu du Abadiño-ko alkateak

"Errepetizio domeka" ospatuko dute, bestetik, ekainaren 16an: trikitilariak, Trapagarango abesbatzaren emanaldia, eta herri kirolak izango dira.

Mendiolako bidegurutzetik Muntzaraz auzoaren sarre-rainoko tartean ipini dituzten semaforoak larregi direla eta trafikoa oztopatzen dutela kritikatu, hainbat kexa jaso ditu udalak azken asteetan.

Errepidea forala denez, semaforoak Bizkaiko Aldundiak ipini dituela azaltzeko, bandoa ere kaleratu du orain dela aste batzuk gobernu taldeak. Jose Luis Navarro alkatearen ber-

Errepidearen erabiltzaileek udalera helarazitako kexak Bizkaiko Aldundira bideratu ditu Abadiño-ko Udalak

betan, "gobernu taldeak ere uste du errepide horretan tarte laburrean semaforo gehiegi ipini dituztela, eta horrek auto gehien dabilen orduetan areagotu egiten dituela ilarak".

Mendiola auzorako bidegurutzea arriskutsu zegoela-eta, semaforoa ipintzea eskatu zion udalak Aldundiari, alkateak azaldu duenez; baina, erakunde horren erabakia izan da gain-rakoak ere ipintzea.

Errepidearen erabiltzaileek udalera helarazitako kexak Bizkaiko Aldundira bideratu ditu Abadiño-ko Udalak. Orain Aldundia egoera aztertzen dabilena azaldu du Jose Luis Navarro alkateak, egoera hau zuzentzeko zer neurri hartu behar diren erabakitzeko.

MUEBLES DE COCINA Y HOGAR

**ARRIANDI**

SUKALDE ETA ETXEKO ALTZARIAK

**SANTOS** banatzaile ofiziala

Urbitearte industr., 6 - 3. lokala - 48220 Abadiño  
Tel.: 94 620 26 56 - [abadiano@arriandi.com](mailto:abadiano@arriandi.com)



# ▶ Berbaz

**Isaac Antwi** | 39 urteko ghanatarra, Durangon bizi da. Ghanako elkarteko eta Voz Africana plataformako kidea da

## “Feministak astero pankartagaz irteten badira, hemen eskubide berdintasunik ez dagoelako da”

Bilbon gertatutako emakume etorkin biren hilketak salatzeke, manifestazioa deitu zuen pasa den domekan Voz Africana plataformak. Bertako kidea da Isaac Antwi ghanatarra. Etorkin askok duten babes faltari, eta gaur egun bizi duten egoerari buruz berba egin du.

### > AMAIA UGALDE

**Zelan joan zen domekako manifestazioa?**

Ondo. Hiru-lau egunean antolatuta genuenez, eta eguraldi txarra zenez, ez genituen horrenbeste lagun espero. Bertako jende asko ere egon zen. Askok animatu gaituzte, eta esan digute hemen halakorik ez dela gertatu orain arte, etorkinak kalera irtetea gauzak aldarrikatzen. Ni 2003tik nago Durangon, eta inoiz ez dut halakorik ikusi. Pauso bat dela uste dut.

**Voz Africanan zelan baloratu dituzue Bilboko hilketak?**

Atsekabe handia izan da guretzat. Etorkin garen aldetik, eta emakume horiek egiten izan duten lanagatik. Eguenean batzartu ginen, eta ikusi genuen egin genezakeen gauza bakarra kalera irten eta gure ahotsa entzunaraztea zela. Lehenago gertatutakoak ere hor daude. Bilbon, orain dela bost bat urte, Nigeriako emakume bat hilda aurkitu zuten hotel batean, eta ez dakigu zer gertatu zen. Oso herri aurreratuan gaude, eta halako gauzak gertatzen direnean, normalean, erruduna aurkitzen da. Kasu honetan, ez zen ikerketarik egin, ez dakigu beste ezer, zergatik hil zen, nor izan zitekeen haren heriotzaren erruduna...

**Halako kasu gehiago egon daitekeela uste duzu?**

Bai. Azken honetan badakigu nor izan den erruduna. Emakume kolonbiarra Nigeriakoa baino astebete lehenago hil zuen. Baina Adagaz harrapatu ezean, jakingo al genuke kolonbiar hori gizon haren eskuetan egon zenik? Eta nork daki ez ote duen gauza gehiago egin! Nik familia daukat hemen, emaztea eta seme-alabak, eta egunen batean etxera bueltatzen ez banaiz, euren jakin eragin dezakete. Baina etorkinen % 80 bakarrik dago. Kasu horietan, kalera irten eta ez badira bueltatzen, inork ez du ezer esango. Gainera, lanagatik asko mugitzen gara.

**Orduan, pertsona bat denbora batean ikusi ez arren...**

Inork ez du pentsatzen desagertu egin denik. Nire herriko gizon bat, Ghanakoa, Galdakaoko ospi-



talean hil zen. Bilbon bizi zen. Pisu-kidea zeukan, beste herrialde batekoa, eta hark ez zuen espainolez hitz egiten. Agian esangozion ospitalera joan zela, baina ulertu ez. Hil zenean, ospitaletik elkarreterara deika hasi ziren. Joan nintzen, eta bai, banekien Ghanakoa zela, bistaz ezagutzen nuelako, baina ez zegoen inongo elkartean. Etorkina bazara, onena da elkarte batean egotea. Etorkinena edo bertakoena, ber-

din da. Zerbait gertatzen bazazu, zure datuak jakin ditzakegu, zein den zure familia eta zelan kontaktatu. Mutil haren kontakturik ez daukagu Ghanan. Inork ez daki Ghanako zer herritan bizi zen eta zein den haren familia.

**Bilboko emakumeak ere babes barik zeudela uste duzu?**

Juan Carlosek, “txapeldun faltsuak”, harrapakin errazak zituen. Agian, San Frantziskon

ezagutuko zituen emakume horiek eta euren historia; babesgabe zeudela aprobetxatu zezakeen.

**Indarkeria matxista ere badago tartean.**

Ez dago eskubide berdintasunik. Ghanako elkartean, urtero antolatzen ditugu giza eskubideen inguruko hitzaldiak. Gure jendeak eskubide horiek daudela jakin dezan gura dugu. Askok, galdetzeko eta berba egiteko beldur dira. Gure artean emakume asko dago tratatu txarrak jasotzen dituen, eta salatzeke beldur dira. Lehenago tradizio bat egon delako euren herrialdean; salatu edo ez, emakume izanda ez zuten ahotsik. Hori hemen ere badago. Nik hemen ikusten ditut elkarte feministak eguenero pankartekin irteten, emakumeentzako eskubideak eskatzen, euren askatasunagatik borrokan. Eskubide berdintasuna badago, zergatik orduan aldarrikatzeko beharra? Horrek esan nahi du, hemen ere ez dagoela halakorik. Dirua eta lagun boteretsuak di-

tuztenek bai, baina besteek ez dute ahotsik.

**Voz Africanan batu zarete hainbat elkarte. Zeintzuk dira zuen helburuak?**

Elkarteak sortzea oso garrantzitsua da. Ghanakoa 2006an sortu genuen. Lehenago 120 bat lagun ginen, eta orain, berrogeita hamapiku. Krisia dela-eta, jende asko Ghanara eta beste herrialde batzuetara joan da. Gure antzeko elkarte asko daude, eta elkarteotan Afrika osoko jendeagaz beste elkarte bat sortzeko ideia sortu zen. Gaur egun, Bizkaiko hamabost elkarte gaude Voz Africanan. Gure eskubideak defendatzea eta ditugun arazoak konpontzea dira gure helburuak. Informazioa trukatzeko gunea ere bada. Batera egiten badugu lan, ozenago egingo dugu.

**Zelan eragiten dizue krisiak?**

Eragin handia du gugan. Krisia heldu zenean, lehenengo, etorkinak bota zituzten lanetik. Nik bost urte daramatzat lan egin barik. Orain zaila da inon sartzea, leku guztietatik jendea botatzen dabilzalako. Lagunarteko laguntza, + Dendakekin ere harremana daukagu elkartean, eta garbiketara, zamalanetan, eta abarren ere lantxoak egiten ditut...

**Xenofobia handitu dela igarri duzu?**

Krisiaren aurretik eta orain, jarrerak desberdinak dira. Batzuk diote bertakoei lana kentzen gabiltzala. Gu hona ez gara etorri betiko; lan egin eta etxera bueltatu gura dugu. Jendeak ez du hori ikusten. Eta hori, hemendik ere joan izan dela jendea kanpora lan bila... Nik jakin izan banu hau horrelakoa zela, ez nintzateke etorriko. Hemen etorkizun hobe zegoela-eta etorri ginen. Batzuk, bizitza osoan aurretutako diruarekin; Marokotik pateran etorri diren batzuk 8.000 dolar ordaindu zituzten. Gure elkartean irakasleak eta medikuak ere badaude, baina han ikasitako lanbideek hemen ez diete balio. Batzuk bueltatu gura dute, baina askok ez daukate dirurik. Krisiagaz lanik ez dagoela-eta errua botatzen digute, baina erabaki okerrak hemengo pertsona boteretsuek hartu dituzte.

“

*Etorkinen % 80 bakarrik bizi da. Falta badira, inork ez du ezer esaten; agian lana topatu dute beste nonbaiten”*

“

*Lanik ez dagoelako errua botatzen digute, baina erabaki okerrak hemengo pertsona boteretsuek hartu dituzte”*



## &gt; MUSIKA



## “Areto handi zein txikietan; entzun gura gaituen jendearen aurrean joaz gozatzten dugu”

Durangoko Plateruenean eskainiko du Javier Vargas (Madril, 1958) bluesaren gitarrista handiak kontzertua. Bi hamarkadako ibilbidea errepasatuko du

> **ITSASO ESTEBAN**

**Non, zertan zabilta oraintxe?**  
Madrilen nago, laster kaleratuko dudana diskoaren azala amaitzen gabiltza. Duela bi egunera arte, kontzertu biran ibili gara espainiar estatuko hainbat hiritan.

**Zelan hartu zaituzte entzuleek bira horretan?**

Geratu barik gabiltza azken lau urteetan, jo eta jo, ehunka kontzertu egin ditugu Europan zehar. Urrira arte, beste hainbat kontzertu dauzkagu, eta aldi berean, hurrengo diskoa borobiltzeko lanetan ere bagabiltza.

**Benetan zabilta geratu barik!**

Bai. Urtea hasi zenetik, birritan etorri naiz Europara, eta errepidean eta oholta gainean eman ditugu hilabeteak.

**Nondik atera duzu disko berri-rako kantak sortzeko astia?**

Iaz nire ibilbideko kanta guztien *Vargas Blues Band & Company* bilduma kaleratu genuen, hainbat lagun musikariren kolaborazioarekin: Jack Bruce, Larry Graham, Andrés Calamaro eta Raimundo Amadorrekin, esaterako. Urtebete darama disko horrek merkatuan. 2012ko neguan, Ibizan daukadan etxean sortu nituen, bestalde, laster kaleratuko dudana disko honetarako kantak. *Riff* eta ideia piloa idatzi nituen, eta hamaika kanta sortu ditugu.

**Zelakoa izango da disko berria?**

Rock-blues disko bat da, eta *Heavy city blues* deituko da. Jarraraitzaile eta rockaren munduko lagun askok esan izan didate sarri, ea zergatik ez dudana disko rockeroago bat egiten; Black Sabbath edo Jimmy Hendrixen estiloan. Nire *riff*ak blues klasikotik datozen arren, rock&roll doinuetan gehiago sartu naiz, doinu gogorragoetan. Bateria ikaragarriak lortu ditugu Carmine Appice maisuarekin. Disko baten grabazioa amaitzen dudanean, beti iruditzen zait zerbait hobetu zitekeela. Ostera, perfektua iruditzen zait hau: benetan, ez diot ezelako akatsik topatzen!

**Zer da zure lanetik gehien betetzen zaituena?**

Oholtzara igotzeagaz gozatzten dugu musikariok gehien, eta merkatuaren kontuekin gutxien: paperak, kontratuak, erabakiak hartzea... Sortzea eta jotzea da gogoko dudana. Eta errepidea: asko gozatzten dut bidaiatzen ere.

**Zure ibilbide osoari errepasoa egingo diozue Durangon?**

Urte asko daramatzadanez banda honegaz, oso errepertorio zabal daukagu, eta aldatu egiten dugu kontzertutik kontzertura, lekuaren arabera. Baina *Vargas Blues Band & Company* diskoko kantak joko ditugu, seguru.

**Durangora zer musikarirekin etorriko zara?**

Luis Mayo bajistarekin, Peter Kunst bateriarekin, eta David Lads Sanchez teklistarekin.

**Areto oso handietan zein txikietan jotzen duzu.**

Leku eta jaialdi ikaragarri handietan, areto txikiagoetan, bai eta blues klub txiki-txikietan ere jotzen dugu. Areto handi zein txikietan; entzun gura gaituen jendearen aurrean joaz gozatzten dugu. Bluesa, gehien-gehien, areto txikietan gozatzten da, gainera.

**Bidaia bat da zure biografia. Zer eragin du esperientzia horrek zure musikan?**

Asko eragiten du, noski. Argentinako rockak, esaterako, asko eragin zidan, baina Venezuelako musika latinoak jaso nuen, eta gero, AEBetara joan nintzen, nik gura nuena bluesa eta rocka jotzea zelako, eta han zegoelako mugimendu hori: musikari piloa ezagutu dut horrela.

**Musikaren bila bidaiatu duzu.**

Musika eta gitarra izan dira nire bidea. Orain Interneten daukazu edozein gauza, baina ni hasi nintzenez, Jack Kerouacken *Bidean* liburuan bezala, bidaiatu beharra zegoen nahi zenuen hura entzuteko: abentura bat zen, eta sare sozialak kalean zeuden.

Apirilean, Ero eta Urgatz taldeekin Durangoko Platerueneko oholta partekatu zuen Mutrikuko Laumono taldeak, Durangoko kafe antzokiak musika talde gazteei zuzenean jarduteko aukera eskaintzeko helburuz antolatzen duen Lokaletik At ekimenean.

Oraingoan, berriz, mundu osoan ezaguna den Javier Vargas gitarristaren eta haren bandaren aurretik jotzeko aukera izango dute mutrikuko musikariek, biharko Plateruena kafe antzokiko hitzorduan, 22:00etatik aurrera. Orain urte bi kaleratu zuten *Adrenalinia* diskoko kantak eskainiko dituzte kontzer-

tuan. Bederatzi abestiko diskoa da *Adrenalinia*, eta blues eta hard rock doinuak biltzen ditu, besteak beste.

90eko hamarkadaren amaieran sorturiko taldea da Laumono, aurretik Ehun Kilo taldean jardun zuen Jon Iturrino gitarristak sustaturikoa. Tartean taldekideen joan-etorriak eta geldialdiak igarota, oholzetara bueltatu dira mutrikuarrak. Hainbat musika taldetan, hala nola Aiumeen Basoa edo Brankan, urteetako esperientzia daukaten bost musikariren batura da Laumono. Jimmy Hendrix, Deep Purple edo Led Zeppelin taldeen bertsioak egiten hasi zen musika taldea.

## Laumono mutrikuarrek zabalduko dute Platerueneko biharko gaua



&gt; ARGAZKIGINTZA

## Fotograbatuak biltzen dituen erakusketa Durangoko Museoan

Ekainaren 23ra arte Durangoko Arte eta Historia Museoan izango dira ikusgai

&gt; ITSASO ESTEBAN

Joan zen barikuan inauguratu zuten *Fotograbatua* izeneko erakusketa, Durangoko Arte eta Historia Museoan. Zarauzko Photomuseum erakundeak sustatutako eta utzitako erakusketa da, eta ekainaren 23ra arte izan-

XIX. mendeko Frantziako paisajeak eta errealitate sozialak islatzen dituzten irudiak daude erakusketan

go da Durangon ikusgai. XIX. mendeko Frantziako paisajeak eta errealitate sozialak islatzen dituzten irudiak dira erakusketakoak: sufragio unibertsala lortu zenekoa, meatzarien errealitateari buruzkoa, nekazarien edota arrantzaleen bizimodua



&gt; LITERATURA

## Hamabi sari banatu dituzte Julene Azpeitia lehiaketan

Domekan, Durangoko San Agustin kulturgunean egin zuten literatur sarien banaketa ekitaldia

&gt; I.E.

Durangoko San Agustin kulturgunean banatu zituzten, joan zen domekan, Julene Azpeitia literatur lehiaketaren sariak. Bertso paperen, olerkien eta ipuinen ataletan banatu dituzte sariak.

Ipuinen ataletan, Maddi Azkarate, Jon Barbero, Alba Oleaga, eta Garazi Mugerza izan dira 18 urte artekoetan sarituak, eta Eñaut Uruburen *Naël eta idazlea* lanari eman dio epaimahaiak adin nagusien ataleko ipuinik onenaren 600 euroko saria.

Olerkigile gazteen atalean, Jon Barruetabeña, Aroa Merino, eta Aitor Bizkarra izan dira saridunak, eta Aitor Albistur 18 urtetik gorakoenean. Bertso paperetan ere saritu dute, gainera, Albistur, Aitor Bizkarra, Martin Arrasate, eta Jon Koka ere saritu dituzte bertso paperen atalean.

Durangoko eskoletako ikasleek zein herritik kanpoko eskoletan diharduten 18 urte arteko durangarrek, eta edozein adin nagusik parte hartu ahal izan dute lehiaketan.

&gt; MUSIKA

## Ikasleen hiru musika emanaldi, Plateruenean

Ikasturte amaierako hiru emanaldi hartuko dituzte egunetan Durangoko kafe antzokiak

&gt; I.E.

Durangoko hiru zentrotan musika ikasten dabilzan musikariak entzuteko aukera izango da, egunotan, Durangoko Plateruenean. Rock Izar Eskolaren

Gaur, Rock Izar eskolakoena gaur, eta ekainaren 20an, Soinua eskolarena hartuko dituzte Plateruenean

erakusten duena...

Fotograbatua, XIX. mendeko amaieran eta XX. mendearen hasieran arte grafikoen alorreko estanziorako ezinbesteko prozedura zen. Oso prozedura landua fotograbatuarena: negatibo fotografikoaren bitartez grabatzen da kasuan kasuko irudia xafla metalikoan.

Erakusketako irudietako batean azaltzen denez, jatorrizko irudian oinarrituta prestatzen da kristal negatiboa, metalezko xaflaren gainean inprimatzen da, eta egurrezko euskarriaren gainean egiten da grabatuaren muntaia. Azkenik, azidotan sartzen da grabatua.

Ondoren, ilustrazio hori erreproduzitzeko baliaturiko moduren arabera, fotolitografiak, fototipiak, edota fotopografiak lortzen dira.

Argazkigintzan garrantzi handikoa izan den prozesua eta bere emaitza batzuk ikusteko aukera dago Durangoko Arte eta Historia Museoan, ekainaren 23ra arte.

Zarauzko Photomuseum erakundeak antolatutakoa da erakusketa, eta museo horrek ekarri du Durangora

**GEURE DURANGALDEA**

**IÑAKI ETXEZARRAGA**

Musikaria



### Noiz arte?

Talde bikain asko oihartzunik izan gabe sortu eta desagertzen dira, euren entsegu lokaletatik eta ikuslerik gabeko kontzertuetatik soilik igarota. Inolako arrakastarik gabe. Urte askotako lana eta ilusioa bertan behera geldituz. Eta bitartean, entzuleak modari jarraitzen dio, askotan inolako irizpiderik gabe.

Telebistak ez die talde berriei aukera askorik ematen. Duela hogeitau urte baino gehiago sortutako kanta bati buruzko programaren iragarki bat ikusita, amorruta ematen du, bertsio batetik sortutako "euskal" kanta batek oraindik telebistan horrelako tarte zabala izatea eta talde berriek beraien proiektuak ezagutarazteko aukerarik ez izatea. Baina oraingoan ere, modaren korranteak eramaten du jendearen aukeratzeko irizpidea. Komunikabideek ateratzen dutena jaten dugu. Antisistema sistema bihurtuta.

Berdin dio beste talde batzuen kantak moldatu, letrak aldatu eta kantak diskoetan sartzea. Jendea askotan kanta hori nondik datorren ere ez da enteratzen. Edo oraindik lotsagarriago iruditzen zaizkit zuzenean playbacka egiten duten taldeak. Jendeari badirudi ez zaiola batere inporta, edo ez da ezertaz ohartzen. Baina argi dago garrantzisuen ez dela egiten den musika, baizik eta nor zaren eta zer esaten duzun.

Zoritxarrez oraingoan amorruta biziz idatzi dut, denbora luzean barnean izandako sentimenduak adieraziz. Gizarteak aldaketa behar duela esaten dute askok, nik musikan ere aldaketa asko egingo nituzke.

**Hemen agertu gura badozu deitu!**

**94 621 79 02**

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

**ROCK IZAR ESKOLA**  
EKAINAK 14 17:30etan  
IKASLEEN EMANALDIA. Doan

**VARGAS BLUES BAND +**  
EKAINAK 15 22:00etan  
Mutrikuko LAUMONO taldea. 12-15 €

**SOINUA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK OHOLTZAN.** Doan

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

san agustin kultur gunea kalean  
ANTZERKIA MUSIKA ZIRKOA TEATRO MUSICA CIRCO

2013  
durango

**uda kalean bizi**

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO LEIALA

**> ANTZERKIA**

## Umeentzako antzezlan bat prestatu du Elorrioko Arrapaladan taldeak, lehenengoz

‘ZapAAAta bila?’ obraren hiru emanaldi eskainiko dituzte asteburuan, Elorrioko San Jose ermitan

**> ITSASO ESTEBAN**

Bihar, eta domekan, goizean eta arratsaldean eskainiko dute Elorrioko Arrapaladan antzerki taldekoek *ZapAAAta bila?! antzezlan*. Hiru eta zazpi urte bitarteko umeentzat pentsaturiko lana da Elorrioko sei antzerkizaleok prestatu duten hau.

Bihar, 18:30ean, eta domekan, 12:30ean eta 18:30ean estreinatuko dute antzezlan, Elorrion. San Jose ermitan eskainiko dituzte emanaldi guztiak, eta bertan ibili dira asteon, Sonia Villamor zuzendariagaz, obrari azken ukituak ematen. San Jose ermita kultur emankizunetarako erabili gura du udalak aurrerantzean; asteburuan probatuko dute espazioa Arrapaladan taldekoek.

Hiru eta zazpi urte bitarteko umeentzat pentsaturiko lana da Elorrioko sei antzerkizaleok prestaturikoa

Ume bihurri batentzako zapata handi eta gogor batzuen bila herriko zapatariak eta Askodaki izeneko sorgin jakintsuak munduan zehar egiten duten bidaia

eta bizi dituzten abenturak dira antzezlanaren haria.

Umeentzako hainbat ipuin irakurri eta aztertu ostean, taldekideek eurek moldatu dute

“oso istorio polita kontatzen duen” antzezlanaren testua. Ume txiki-txikiei zuzenduriko 40 minutuko obra da emaitza: *ZapAAAta bila?!.*

Bost dira *ZapAAAta bila?!* obrako aktoreak: Blanki Gomez, Maite García, Maria Herrero, Maritzi Baseta eta Karmele Ganboa. Duela hamar urte, ikastaro bati esker gerturatu ziren antzerkikira, eta hainbat lagunren sarturitenen ostean, elkarregaz zaleztasun horregaz jarraitzen dute 43 eta 56 urte bitarteko Elorrioko emakume antzerkizaleok. Obra honetan Sonia Villamorren zuzendaritzapean dihardute.

## Ikusleen interesari eutsi ahal izateko teknikak baliatuz

Itzalak, soinuak, eta objektuak ere baliatzen dituzte



Antzerkiko hainbat teknikarekin jolastuta osatu dute taldekideek bihar estreinatuko duten obra: “Ez da bakarrik antzezte, baliabide desberdinekin jolastea baizik: itzalekin, soinuekin, objektuekin...”, azaldu dute taldekideek. Teknika horiek guztiak baliatuta, “umeen interesari eustea” dute helburu.

Elorrion bizi den Sonia Villamor bilbotarraren zuzendaritzagaz jardun dute entseguetan teknika horiek lantzen. Hiru

Urtero parte hartzen dute Arriolako 24 Ordu Digitalean film laburren lehiaketaren sari banaketan

hilabetez ibili dira lanean Arrapaladan taldekoak *ZapAAAta bila?! antzezlan*a prestatzen.

**Herriko ekitaldian**

Orain hamarkada bat Elorrioko antzerki ikastaroan hasi zirenetik, askotariko antzezlanak oholtzaratu dituzte Arrapaladan taldekoek euren herrian: aurkezpenak egiten dituzte esketxe-kin, urtero parte hartzen dute Arriolako 24 Ordu Digitalean film laburren lehiaketaren sari banaketa ekitaldian, edota merkatarien elkartearen ekitaldian.

Taldean hasi eta lasterretara gaztetxeetan eskaini zuten *Erosi, erosi* obra prestatu zutela gogoratu dute taldekideek. Lehenengo aldiz sortu dute umeei zuzenduriko obra bat.

**BODEGUILLA**

**TRAÑA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85

**hitz**

liburudenda

artekalea 14 durango 94 681 07 76

info@hitzliburudenda.com

MATERIAL DE CONSTRUCCION

**MACOBER**

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA BERRIZ, S.L.

BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA  
Eitua Industriagunea, 66  
Tel./Faxa: 94 682 78 90  
48240 Berriz (Bizkaia)  
macober@movistar.es

Zeramika eta gresen salmenta • Zementuak - isolamenduak  
- pladurra... • Eskalintzak lehen mallako zeramiketara •  
2. mailako baldosak trastelekuetarako.

Den-dena MACOBERren, Berrizen!



Ondorengo galderaren erantzuna badakizu...

*Hemen, Kafeari Baqué esaten diegu*

## Cafés Baqué produktuen otzara... zuretzat!



**Galdera: Zelan deitzen da zapatuan Plateruenean kontzertua emango duen gitarrista madrildarra?**

Zure datuak eta erantzuna helbide honetara bidali



zozketa@anboto.org edo  
Bixente Kapanaga 9-lurreta

**Apirileko irabazlea: Pablo Iglesias. Zorionak!**

# UDAKO GEHIGARRIA



# Barnetegi ibiltarian, euskara praktikatu eta Euskal Herria ezagutzeko aukera

AEKren barnetegi ibiltaria Otxandiotik ere pasako da, ekainaren 29an eta abuztuaren 3an



**Inguruagatik oporrak euskaraz pasa ezin dituztenek ere badute parte hartzeko aukera**

**Aurten nobedade edo bitxikeria bat izango da: lehenengo biderrez ibiliko dira gauzez**

Ekainaren 29an hasiko da AEKren barnetegi ibiltaria. Udako oporretan euskara praktikatzea, eta aldi berean, Euskal Herria ezagutzea da ekimenaren helburua. Asier Arroita irakaslea dabil antolaketan, eta esan du ez dela bakarrik ikasleei begirakoa. Inguruagatik oporrak euskaraz pasa ezin dituztenek ere badaukate parte hartzeko aukera. Atal bi edukitzen ditu ekimen honek: oinez edo bizikletaz egitekoak. Hilaren 26an oinezkoa hasiko da Zeanurin, eta egun horretako etapa Otxandion amaituko dute.

Euskal Herriko hainbat mendi eta txokotatik pasako da oinezko martxa. Gorbeia, Anboto, Aizkorri... Hiru Erregeen Mahaia igo eta Izaban amaituko da ibilbidea, uztailaren 14an. Euskal Herriko mendi altuena igotzea izango da benetako helmuga, Arroitarren ustez. Mendirik mendi, mendebaldetik ekialdera zeharkatuko dute Euskal Herria.

Bizikletan egiteko ibilaldiari abuztuaren 3an ekingo diote Urduñan. Hau ere, lehenengo egunean helduko da Otxan-

diora, eta bertan pasatuko dute gaua. Euskal Herriko klima eta orografia desberdinak ezagutzea gura dute, Arroitak azaldu duenez: Arabako lautada, Bardeak, Pirinioak... Abuztua izanik, Bardea basamortua gauzez zeharkatuko dute, eguneko beroak saihesteko. Aurtengo nobedadea edo bitxikeria izango da; lehenengo biderrez ibiliko dira gauzez. Abuztuaren 21ean emango dituzte azkeneko pedalkadak Zarautzera ailegatzeko. Parte-hartzaileekin batera hiru irakasle joango dira.

## Jendea eta euskalkiak

Arroitzak adierazi du hainbat herritan geratzen direla, bertako jendea eta euskalkiak ezagutzeko. Atsedean egunetan bertso-afariak eta antzeko ekitaldiak eratzten saiatzen dira, gainera.

Hamalau urte dira bizikletagaz hasi zirela, eta lau oinezkoagaz. "Oso esperientzia positiboa" da Arroitarren arabera, eta bertan sortutako hartu-emanek gerora ere jarraitzen dutela aipatu du.

## OINEZKOA

- **Iraupena:** ekainaren 26tik uztailaren 14ra
- **Luzera:** 300 kilometro inguru, eguneko 25 gutxi gorabehera
- **Apuntatzeko epea:** ekainaren 21era arte
- **Prezioa:** 498 euro

## BIZIKLETAZ EGITEKOA

- **Iraupena:** abuztuaren 3tik 21era
- **Luzera:** 1.000 kilometro inguru, eguneko 70 gutxi gorabehera
- **Apuntatzeko epea:** uztailaren 27ra arte
- **Prezioa:** 498 euro

## OHARRAK

- Ibilbidea parte-hartzaileen eritmoari jarraituz egingo dute.
- Erosoago ibiltzeko, pisu guztia furgonetan eramango dute.
- Informazioa jaso eta izena emateko: 902 36 22 94 / udabarnetegiak@aek.org

**aek** UDAN ERE  
EMAN EUSKARA ELKARRI

**UDA KO ESKAINTZA**  
Maila ofizialak · EGA

## UDA KO IKASTARO TRINKOAK DURANGALDEAN

- Ekainaren 24tik uztailaren 19ra
- 8:30etik 14:00etara (ordu erdiko atsedena)
- Euskara maila hobetzeko eta hizkuntz eskakizunak ateratzeko.

INFORMAZIO GEHIAGO:

- Durangon, 94 681 73 49 / abarrak@aek.org • Elorrion, 94 658 21 11 / abizari@aek.org
- zaldibar@aek.org • abadino@aek.org • berriz@aek.org

eman izena [www.aek.org](http://www.aek.org) 945 25 24 00



## “Udan, igerilekua herritarren bilgune bihurtzen saiatuko gara”

Atxondoko igerilekuak ekintza askorekin gozatu ahal izango dira aurten ere



### > JOSEBA DERTEANO

Atxondoko igerilekuek eta bertako tabernak bihar irekiko dituzte ateak, udako denboraldia hasteaz batera. Tabernako ardur hartu dutenak, iaz legez, askotariko ekintza sorta prestatzen dabilta, udako egun eta iluntze sargoriak kultur eskaintza freskagarriagaz animatu guran. Batzuk, erabiltzaileei zuzenduta egongo dira igerilekuko ordu-tegian (11:00etatik 20:00etara), baina, beste asko (musika kontzertuak, adibidez) iluntzeetan egingo dituzte, bertaratzen diren denentzako.

Iaz taberna kudeatu zuen laukotetik Ane Zaratek (Durango, 27 urte) jarraitzen du aurten, eta beste lau lagun gehitu zaizkio: Borja Moronatti (Durango, 27 urte), Iñaki Zuazubizkar (Durango, 22), Paul Arana (Mañaria, 20) eta Jokin Alberdi (Mañaria, 22). Taldeak aurpegi berri asko ditu, baina ilusioak eta helburuak berdinak dira: “Atxondon, udan ez dago aisialdirako eskaintza handirik, eta guk hutsune hori bete eta igerileku ingurua herritarren bilgune bihurtu gura

dugu, askotariko ekintzen bitartez”, azaldu du Ane Zaratek.

Iaz legez, igerilekuaren kanpoaldean karpa bat ipintzeko asmoa dute. Egunez, bazkariak (entsaladak, plater konbinatuak, otartekoak eta errazioak) edo edariak zerbitzatuko dituzte; gauetan, afariak eskaini eta kultur ekintzak antolatuko dituzte. Karpa igerilekuaren kanpoaldean ipiniko dutenez, gura duten denentzako zabalik egongo da: “Atxondarrak zein ondarrutarrrak, denak gonbidatuta daude”.

Egunotan, datorren hiru hilkorako egitaraua zehazten ari dira. Musika kontzertuak antolatuko dituzte, taldeekin zein bakarlariekin, eta, baliteke gau tematikoak ere prestatzea. Esate baterako, orain lantzen ari den proiektu berria, ipuin antzertuak, Atxondora eroateko prest agertu da Eneko Sagardoi aktorea. Iaz, besteak beste, Miren Amuriza eta Eneko Abasolo *Abarkas* batu zituen bertso saioa errepikatzeko asmoa ere badute.

Adin tarte guztietara heldu gura dute, eta gaztetxoentzako tailerrak ere antolatuko dituzte.

### > J.D.

Iurretako Kimuak aisialdi taldeak bost urte bete ditu aurten, eta hori dela-eta, ekainaren 22rako jaialdi bat antolatu dute Iurretan.

Urteotan aisialdi taldean ibili diren guztiak batu eta egun atsegin bat pasatzeko asmoz antolatu dute jaialdia. Izan ere, orain bost urte Kimuak sortu zutenetik hona, hasieran umeak zirenetako batzuk begiraleak dira orain, eta gaztetxo berriak ere badatoz atzetik. Jaialdia denen topaleku izatea gura dute, eta gaztetxoei zein nagusiei begirako ekintzak prestatu dituzte Iurretako plazan.

Gaztetxoei begira, egun osoan haurrentzako parkea (gaztelu puzgarriak...) eta tailerrak egongo dira, eta nagusiagoek ginkana erraldoia izango dute 18:00etatik aurrera. Iluntzean herri afaria egingo dute, eta eguna Krome eta Ingoaldeu taldeen musikarekin borobilduko dute. Afaritarako txartelak Gauargi eta Intxaurre tabernetan daude salgai, bost euroan.

Gainera, Kimuak taldearen inguruan dabilzan hezitzaile zein gaztetxo guztien konpromiso eta parte-hartzea eskertu guran, urteurren opari legez, abesti bat grabatzen dabilta, eta jaialdiaren egunean bertan aurkeztuko dute. Mikel Nuñez eta Kimetz Zenitagoia *Dummyk* hartu dute musika konposatzeko ardura. Letra, ostera, Miren Amurizak idatzi du. Horiez gain, Hegoi Petite, Egoitz Uriarte, Liher Granados eta Asier Elias musikarien eta Gorka Bidaurrezaga *Potti* musika teknikariaren laguntza izan dute.

### EGITARAUA

#### EKAINAREN 22a, ZAPATUA:

- 11:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00: haurren parkea eta tailerrak
- 12:00: kale animazioa
- 18:00: ginkana erraldoia
- 21:00: herri afaria: “Guztiak gara kimuak”
- 23:00: Kontzertuak: Krome eta Ingoaldeu taldeak

## Iurretako Kimuak aisialdi taldeak bosgarren urteurrena ospatuko du

Ekainaren 22an, gazte zein helduentzako egun osoko jaia egingo dute plazan



# ALLUITZ MOTOR, S.L.



Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia

Tel.946 202 004 Faxes: 946 200 998



Bizipen ezberdin bat egunero



## PLATERUENA

Landako etorbidea 4a - Durango  
Tel.: 94 603 03 00

Egunez kafetegi giro gozoa eta eguneko menua.  
Terraza atsegina.  
Kultur egitarau zabala.  
Gauetz, giro paregabea seiak arte.



## INTXAURRE ELKARTEA

Balbino Garitaonaindia, z/g - Durango  
Tel.: 94 681 80 70

Gosariak 07:00etatik aurrera astelehenetik  
barikura. Pintxoak. Terraza 10:00etatik aurrera.  
19:00etatik aurrera: entsaladak, bokatak, izozkiak,  
kafeak... Mahai zerbitzua eta giro euskalduna



## BODEGUILLA

Traña-Matiena  
Tel.: 94 681 43 85

Terrazan zein barrualdean, errazio eta  
ogitarteko ezin hobeak aurki ditzakezu!  
Erdi Matiena auzora, ez zara  
damutuko!

> PLAZAREN A





## ZERO

Andra Maria, 6 - Durango  
Tel.: 94 681 22 22

Terraza paregabea Durangoko alde zaharraren bihotzean. Etor zaitez gure ogitarteko eta errazioak afaltzera eguenetik zapatuta! Astelehenetik barikura itxaroten zaitugu inguru bikainean!



## XELAI

Nizeto Urkizu, 37-39 - Elorrio  
Tel.: 94 655 02 66

Elorriion, terraza ederrean, entsaladak, errazioak, ardoak, pizzak, otartekoak, oilaskoak, postreak... Jateko aukera ezin hobea! Zatoz eta gozatu inguru paregabean!



## MOMOTXO

Plateruen plaza - Durango  
Tel.: 94 681 10 06

Jateko zein egoteko leku ezin hobea. Jateko: kazolatxoak, bokatak, entsalada bereziak... Egoteko: terraza nahiz barruko txoko berezietan. Erdu Momotxo tabernara!

PLAZERA >>>

# “Durangaldeko lehen Turismo Gidak oso harrera ona izan du”

Itziar Belar Anbotoko publizitate arloko arduradunak koordinatzen du Durangoko Gida

**> JONE GUENETXEA**

**Anbotok astekariak Durangaldeko Turismo Gida kaleratu du lehenengoz. Proiektuak izan duen arrakastaren aurrean, dagoeneko bigarrena prestatzen dabilta.**

**Zelan sortu da Durangaldeko Turismo Gida kaleratzeko proiektua?**

Anbotok Durangaldeko ostalaritza eta lo egiteko lekuen diptikobat banatzen zuen Durangoko Liburu eta Disko Azokan. Formatu hori txiki geratzen ari zela ikusirik, beste pauso bat eman gura izan genuen. Durangoko Turismo Bulegoko arduradunak azaldu zigunez, informazio hori guztia batzen duen euskarri baten falta zegoen eskualdean. Hutsune hori bete guran sortu genuen iaz, lehenengoz, Durangaldeko Turismo Gida.

**Zer harrera izan du proiektuak enpresa iragarleen aldetik?**

Ostalaritza arloan krisiak izan duen eragina kontuan hartuta, ez genekien proiektuan sartzeko asmorik izango zuten ala ez. Oso prezio baxuak jarri genituen, ahalik eta iragarle gehienen parte-hartzea bultzatzeko. Beste iragarle batzuek ere parte hartu dute proiektuan, eta babes handia eskaini digute: Bizkaiko Txakolinak, Eusko Labelak...

**Eta irakurleen aldetik, zer erantzun jaso duzue?**

Erantzuna oso ona izan da, baita irakurleen aldetik ere. Gida oso erabilgarria dela esan digute, eta diseinu aldetik oso argia.

**Turismo Gida zertan datza?**

Gida honetan Durangaldeko taberna, jatetxe, hotel eta landetxe guztiak agertzen dira. Gainera, hala gura izan dutenen ezaugarriak eta argazkiak ere agertzen dira. Nekaturek kaleratzen duenaren estiloko liburuxka da.

**Zer nolako zabalkundea egin duzue?**

10.000 aleko tirada kaleratu dugu. Iazko Liburu eta Disko Azokan banatu genituen hainbat ale. Durangoko Turismo Bulegoan ere eskuragarri daude, baita eskualdeko leku estrategikoetan ere. Euskal Herriko Turismo Bulegoetara ere bidali ditugu. Udara begira, bigarren banaketa txanda bat jarriko dugu martxan, Durangaldeko leku estrategikoetan berriro banatzeko, leku batzuetan amaitu egin dira-eta.

**Zein da ekimen honen helburua?**

Durangaldeko ostalaritza eta hotel eta landetxeak bultzatzea da helburu nagusia.

**Hurrengo gida kaleratzeko asmorik baduzue?**

Bai, Durangoko Liburu eta Disko Azokan kaleratzeko bigarren edizioa prestatzen gabiltza, baita Interneterakoa ere.



“*10.000 aleko tirada kaleratu dugu. Durangoko Turismo Bulegoan daude eskuragarri*”



**zure aurrezkirako**

**Virginia Lobato**  
Eroski Hipermerkatuetako Arraindegia  
Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Castro Urdialeseko zentroetarako balio du.

**PREZIOAK JAITSI DITUGU**  
marka guztietako  
**2.000**  
produktu  
baino gehiagotan

**Bertakoak gara eta bertako jendearekin gaude**

Informazio gehiago [www.eroski.es](http://www.eroski.es) webgunean

## “Sortzaileek barruan duten talentua ateratzeko plaza bat eskaintzea da asmoa”

‘Talentua plazara’ ekimena antolatu dute Berbarok eta Plateruenak; parte-hartzaileek uztaillaren 12ra arte dute izena emateko aukera

### > JONE GUENETXEA

Iker Ajuriagerra eta Garazi Etxebarria Berbaroko lan-kideek ‘Talentua plazara’ proiektuaren berri eman digute. Dakitena aurkezteko aukera ezin hobea eskaintzen diete Durangaldeko sortzaileei. [www.berbaro.com](http://www.berbaro.com) webgunean edo 94 620 19 18 telefonoan informazio gehiago eskuratu daiteke.

Zelan sortu da ‘Talentua plazara’ ekimena sortzeko asmoa?

**Garazi Etxebarria:** Urte osoan Olgetan ludoteka antolatzen dugu Plateruena kafe antzokian. Hilean behin umeei euskaraz zuzendutako ekitaldi bat eskaintzea da helburua. Iaz, Irrien Lagunekin elkarlanean aritu ginen. Aurten, proiektu berri bat martxan jarri gura genuen, eta ‘Talentua plazara’ antolatzea bururatu zaigu.

Despiste kanpaina bikaina egin duzue!

**Iker Ajuriagerra:** Ekimena ezagutzera emateko kanpaina berezi bat antolatu gura izan dugu. Sortzaileek barruan duten talentua ateratzeko plaza bat eskaintzea da asmoa. Ideia horrekin, pertsonaia bitxi batzuk asmatu ditugu eta bideoak grabatu: dutxan abesten duena, bere gelan dantzan egiten duena, gitarra jotzailea, mimoa... Primeran pasatu dugu grabatzen!

Zelako emanaldiak aurkeztu ahal izango dituzte?

**G.E.:** 16 urtetik gorako parte-hartzaileek ordubete inguruko emanaldiak prestatu behar dituzte. Baldintza bakarra euskaraz izatea eta 2-10 urteko umeei zuzenduta egotea da. Edozein diziplina onartzen dugu: ipuin-kontaketa, antzerkia, mu-

sika emanaldia, umorea... Berbarok horren zabalkundea egiteko konpromisoa hartzen du, gainera.

Ikuskizunen aukeraketa zelan egingo duzue?

**G.E.:** Uztaillaren 12ra arte izena eman daiteke. Irailean, aurkeztutakoen artean sei aukeratuko ditugu. Berbaroko kideak eta elkarteagaz hartu-emana duen jendeak parte hartuko du epaimahaian. Anitza izatea gura dugu.

Noiz igoko dira eszenatokira?

**I.A.:** 2013ko azarotik 2014ko apirilera lan horiek zuzenean aurkeztuko dituzte. Aukeratutako lan bakoitzak 200 euro jasoko ditu. Gainera, aurkeztutako sei lanetatik, ikusentzuleek bat aukeratuko dute, eta horrek 100 euroko saria jaso dezake.



## Berbarok prest ditu 2013ko udalekuak, ume eta gazteek udaldiaz gozatu dezaten

Aurten, 265 ume eta gaztek, eta 36 hezitzailek parte hartuko dute udalekuetan

### > J.G.

Berbaro euskara elkarteko bulegoan lanez lepo dabiltza 2013ko udalekuak antolatzen. Aurten, 265 ume eta gaztek, eta 36 hezitzailek parte hartuko dute Berbaroren udarako eskaintzan. Helburua udalekuak euskaraz eskaintzea da. Oihane Barrutia udalekuen arduradunaren

berbatan, “herrietan antolatzen diren Udako Olgetan udaleku irekiak gero eta arrakasta handiagoa dute udaldian herrian geratzen diren ume eta gazteen artean”. 3 eta 10 urte bitarteko umeei zuzendutako udalekuetan irteerak ere antolatzen dituzte, Pagoetara edo Arte Ederren museora, esaterako.

Udako kanpamentuek ere harrera bikaina dute Berbaron. Albeizen Udaroantxiki udaleku finkoetan 25 umek parte hartuko dute. Mendigorriara, berriz, 60 ume joango dira. Gazteek, Iparraldeko kostaldeko udaleku finko-ibiltaria aukeratzen dute. Aurten, Azkainetik Hondarribirako bidea egingo dute 39 gaztek.

**otxandioko igerilekuak**

ekainaren 15etik irailaren 15era arte

{ 11:00etatik 20:00etara }



### EZTEI BIDAIETAN ADITUAK

Egizu zure bizitzako bidaia Annapurnara edo nahi duzun beste edozein paradisu-tara. Guk prestatuko dizugu zure neurrirako bidaia!



“

**BAGOAZ BIDAI**A Ken adituak gara bidaia pertsonalizatuak prestatzen. Urteetako eskarmentuari esker, hamaika proposamen eskaintzen dizkizugu, betiere, baldintza onenetan. Horretarako, geure gidak eta baliabideak ditugu. Utziguzu kudeaketa guri, eta zure neurrirako bidaia antolatuko dizugu.

”



### COSTA RICA

Ezagutu itzazu Costa Ricako paraje ederrak. Guanacaste hondartzatik Puerto Viejo, Tortugeroetik San Jose edo San Gerardo...

3, 7, 10, 16... gaueko egonaldiak. Zure nahietara egokituak.



San Ferminetara autobus berezia uztailearen 6an. Irteerak Zelaieta, Matiena eta Durangotik. Prezioa: 20 euro.



# #talentueplazara!



Zuk jarri talentua  
eta guk jarriko dizugu plaza!

16 urtetik gora badituzu eta  
taldean zein bakarka haur eta  
gazteentzako ikuskizun bat  
eskaintzeko prest bazaude, zatoz!

**Eman izena**  
**uztailaren 12a orduko!**

informazio  
gehiago:

[www.berbaro.com](http://www.berbaro.com)

☎ 946 201 918

🐦 @berbaro

📘 Berbaro Elkarte

3ER  
BAR  
RC  
elkartea

# **Kirola**

> **PILOTA**

## Jaka eta Rezustak finala jokatuko dute Mallabian, Aspegaz debutatu aurretik

Gaur, 19:45ean, Biharko Izarrak Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte lau t'erdian eta binaka



Urtero legez, aurten ere afizionatuetako pilotari onenen topaleku izan da Mallabiko pilotalekua. Kepa Aginako

**JOSEBA DERTEANO**

Biharko Izarrak txapelketak hain argarren aldia du aurtengoa. Urteurrena ospatzeko, ez dute ekitaldi berezirik prestatu, baliabide ekonomikoak urriak direlako. Ikuskizuna eta ospakizuna pilotarietara ipini beharko dute gaur, 19:45etik aurrera jokatuko dituzten finaletan. Eta finala nortzuk jokatuko duten ikusita, pilotarietara euren eskaini diezaioke txapelketari omenaldirik onena.

Binakako finalean, ekainaren 24an Aspe enpresagaz Eibarko Astelenan debutatuko duten Jaka eta Rezusta aurrez aurre

Lehenengo finalean, Aitor Elordi mallabitarrek lau t'erdiko finala jokatuko du Aitor Etxebarriaren aurka

ikusteko aukera egongo da. Eric Jakak (Lizartza, 19 urte) Kerman Galarza (Galdakoa, 21) izango du bizkartzain, eta Beñat Rezustak (Bergara, 20) Xabier Urbietagaz (Asteasu, 20) osatuko du bikotea. Final orekatua espero da. Jaka sasoiaren dago. Eskuina den arren, finalerdian ezker bolearen arriskutsua eta bizia duela erakutsi zuen, eta gantxoaren ere tanto bat baino gehiago amaitu zuen.

Ez dira askotan ikusten atzelari ezkerak, eta Rezusta da

horietako bat. Jotzailea da, eta atzean agindu egin behar luke.

**Elordi mallabitarra finalean**

Binakakoaren aurretik lau t'erdiko finala jokatuko dute. Aitor Elordi mallabitarra da protagonistetako bat. Txapelketa handia osatu eta merezimenduz heldu da finalera. Gernikagaz jokatzen duen Aitor Etxebarria ere jokoan dago. Biek 17 urte dituzte eta euren ematen badute, partidu borrokatua eskainiko dute.

> **MENDIA**

## Atxondotik mendi martxa antolatu dute zapatuan

Asuntze mendi taldeak Atxondoko XXIV. Mendi Martxa antolatu du zapatuetarako. Apatak plazaetik irtengo dira 08:00etan. 15 kilometroko ibilbidean Topetik Tellamendira igoko dira, eta Larrano azpitik jaitsiko dira Axpera. Makilak ura eta janaria erosteko aholkatu dute antolatzaileek. Bost bat orduko ibilaldia izango dela kalkulatu dute. Mendi martxa amaitzean, 13:30 inguruan, luntxa egongo da Axpeko txokoran, eta kamisetak banatuko dituzte partehartzaileen artean.

> **MENDI LASTERKETA**

## Kantabriako kilometro bertikala irabazi du Larizek

Joan zen asteburuan, kilometro bertikalen Espainiako Kopako bigarren iguera jokatuz Kantabriako Fuente Dé inguruetan. Iñigo Larizek iguera irabazi eta errekor berria ezarri zuen: 39.37. Estatuako espezialista onenak (Raul Garcia Munduko Kopako azpitxapelduna, esaterako) menderatzea lortu zuen Mugarra Triatloi Taldeko mendi lasterketak LaFuma taldegaz lehiatzen ditu korrikalari elgoibartarrak.

## Peter-en oroimenezko finalak gaur, Durangon

Asier Zugadik eta Anartz Ajuriak Unai Atutxa eta Gaizka Lopezen aurka jokatuko dute nagusietan

Gaur, 19:30ean, Peter-en Oroimenezko IV. Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte Durangoko Ezkurdi-Jai Alai pilotalekuan. Nagusietako zein 22 urtez azpiko protagonistak bizkaitarrak dira.

Nagusietan, Asier Zugadi markinarrak eta Anartz Ajuria galdakoztarrak Unai Atutxa galdakoztarraren eta Gaizka Lopez ortuellarraren kontra jokatu dute. Atzelari biek segurtasuna dute dohain nagusi, eta ez dute bata bestearen hausteko ahalik. Beraz, finaleko gakoaren aurrean egongo da. Eta aurrean, sasoi betean dauden pilotari bi neurtuko dira.

Atutxa eta Zugadi ausartak dira, eta gehien asmatzen duenak finala bere aldera ekarri dezake.

**22 urtez azpikoa**

22 urtez azpiko finalean, Asier Etxebarria eta Urtzi Bidaburu gernikarrak eta Goikoetxea eta Madariaga mungiarrek lehiatuko dira. Asier Etxebarriaren anaia Aitorrek Biharko Izarrak txapelketako lau t'erdiko finala jokatu du gaur ordu berean.

Txapelketa Durangoko pilota eskolak antolatu du, Durangoko Udalaren laguntza ekonomikoari esker.



Agirrezabal eta Zabala, Amantegi eta Gardokiren kontrako finalerdian.

> **FUTBITO**

## Zaldibarko maratoirako izen-ematea hasi dute

Zaldia kirol klubak Zaldibarko 23. Futbito Maratoia antolatu du ekainaren 28tik 30era. Partidu denak kiroldegian jokatuko dituzte. Izen-ematea Rincon de Paula tabernan egin daiteke (100 euro), ekainaren 27ko 20:00 arte.

Maratoia irabazten duen taldeak 800 euro eta garaikurra jasoko ditu; bigarrenak 500 euro; hirugarrenak 300 euro, eta laugarrenak 200 euro. Herriko talderik onenari 200 euroko saria emango diote.

&gt; FUTBOLA

# Hamabi urteko gaztetxoek futbol txapelketa jokatu dute Tabiran

Guztira, zortzi talde lehiatu dira: tartean daude, Durangoko Kulturala, Athletic eta Aurrera Vitoria



Athletic Clubeko gaztetxoak dira txapelketan parte hartuko dutenetako batzuk.

## > JOSEBA DERTEANO

Azken urteetan famatu egin dira gaztetxoek mailako futbol txapelketak. Etorkizuneko izarren lehen pausoak ikusteko aukera ezin hobea direla esanez, telebista kateek etengabe eskaintzen dituzte ligak amaitzeaz batera. Durangoko Kulturalak ere lehenengo antolatatu du gaztetxoek

Zapatuan sailkapen faseak jokatu dituzte; domekan, finalerdiak, kontsolazio finala eta final nagusia

mailako txapelketa astebururako. Datorren denboraldian haur kategorian ariko diren zortzi taldek Tabira futbol zelaian jardungo dute zapatuan eta domekan.

2001ean jaiotako gaztetxoek osatu dituzte taldeak, eta multzo bitan banatu dituzte. Lehenengoan, Athletic Club, Gernika, Lagun Artea (Leioa) eta Ro-

mo (Getxo) futbol taldeak ariko dira. Bigarren multzoa, Durangoko Kulturala, Aurrera Vitoria, Amorebieta eta Danok Bat (Algorta) taldeek osatu dute.

Zapatuan sailkapen partiduak jokatu dituzte: 09:30etik 14:00etara, lehen multzokoek, eta, 15:45etik 20:00etara, bigarren multzokoek. Lehen fase horretan, 15 minutuko zati bitan banatu dituzte partiduak. Multzo bakoitzeko bi onenek finalerdiak joka-

maieran, talderik onenari ez ezik, jokalarik, atezain eta goletzailerik onenari ere sariak emango dizkiete

tuko dituzte domekan, 09:30ean. Finalerdi horietako galtzaileek kontsolazio finala jokatu dute jarraian; final nagusia, ostera, 12:30ean hasiko da, eta 25 minutuko zati bik osatu dute.

Amaieran, talderik onenari ez ezik, jokalarik, atezain eta goletzailerik onenari ere sariak emango dizkiete.

## > MENDI BIZIKLETA

### Tabirako martxarako hilaren 24ra arte apuntatu daiteke

Durangoko MTB Sapubike Martxa ekainaren 30eko domekan egingo dute, Tabirako jaiekin batera

Iazko arrakastak bultzatuta, Durangoko Sapubike Mendi Bizikleta Taldeak aurten bigarren aldiz antolatuko du mendi bizikleta martxa, ekainaren 30ean, Tabirako jaien barruan. Aurten, 400 parte-hartzaile mugatu dute kopurua, eta izena emateko epea ekainaren 24an amaituko da. Webgune bidez egin daiteke: [sapubike.durangomtb.com](http://sapubike.durangomtb.com)

(10 euro). Kopurua bete ezean, martxaren egunean apuntatzeko aukera eskainiko dute.

Mugarra ingurutik osatu dute ibilbidea. Tarte batzuk iazko berberak dira, baina beste hainbat berriak. Oro har, ibilbidea nahiko latza da antolatzaileen arabera, bai fisikoki, bai tekniki. Beraz, parte hartzeko sasoiaren gotea aholkatu dute.

## > XAKEA

### Abadiñok sailkapeneko lider dela jokatu du etxean

Partida azkarren zirkuituko zazpigarren jardunaldia jokatu dute bihar, Traña-Matienan

Partida azkarren euskal zirkuituko zazpigarren jardunaldia 15 xake talde batuko ditu zapatuan, 17:00etan, Abadiño xake taldeak Traña-Matienan duen lekuan. Orain arte, Abadiñok Debako eta Durangoko jardunaldiak irabazi ditu, eta sailkapeneko lider dago, 34 puntuz. Kantabriako Solvay eta Castro Urdiales taldeek 10

eta 12 puntuko aldea ateratzen die, hurrenez hurren. Beraz, iaz irabazitako txapelketa berrietzako aukerak dituzte.

Zirkuitu honetan Euskal Herriko, Errioxako, Kantabriako eta Asturiasko taldeek parte hartzen dute. Guztira, 25 jardunaldi jokatu dituzte abendura bitartean: horietako bat Elorrioren, uztailaren 6an.

## ADITUAREN TXOKOA



**Garazi Boveda**

**Futbola**

### Teoriatik praktikara

Nik ere esan dut noizbait arrerariak ate aurrean gola huts egitean, begiak itxita ere sartuko nukeela. Nik ere esan dut noizbait penalti hori nire amamak ere geldituko lukeela. Nik ere pentsatu dut inoiz telebistan jokalarik batek baloiarekin pare bat aldiz estropezu egiten duela ikustean, entrenatzaile banintz jokalarik horrek nirekin ez lukeela batera jokatu. Nik ere egin dut papertxo batean nire taldea, entrenatzailearen hamaikakoa jakin aurretik. Nik ere telebista aurrean egonda, libre dagoen taldekidea seinatu dut: "pasaio hari" esanez. Nik ere "beeenga, hurrengo martxa" esan dut, sakonean sartutako baloi batera heldu ez direnean. Nik ere oihukatu dut: "baloi beti lurretik", baretik bestera badabil.

Baina gero, norbera entrenatzen dagoela entrenatzaileak erruleta bat egiten erakutsi nahi digunean, nahikoa lan dugu bizkarrez atzera ez jausten. Ate azpian gaude, zutoinak oso urrun eta aurkaria bertan dagoela ematen du. Zuk hartu behar zenuen baloiak alboko marrik alde egiten dizunean, partidu amaieran horrelako baloirik ez botatzeko erregutzen diozu taldekideari.

Hala, saiatuz jabetzen gara keinu bakoitza hobetzeak dakartzan zailtasunez, eta gehiago gozatzen da egin ezin ditugun erregate, geldiketa edo jaurtiketa akrobatikoak ikusita. Hori bai, telebista aurrean noizbehinka entrenatzaile edo "aditu" itxurak eginez, eta hau eta bestea kritikatu ere gozatzen dugu.

Grupo CATALANA OCCIDENTE

**RUEDA BILBAO ASEGURROAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 - Faxe: 94 681 65 77  
e-maila: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

clínica dental hartzklinika  
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK



Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre 2C blokea, beheka - 48200 Durango - Tel.: 94 681 99 51



**> TXIRRINDULARITZA**

# Giroan parte hartu eta gainerako egutegiari eutsi gura diote

Girorako gonbidapenak onartzeak finantziazioa handitu beharra eragin die



Bizkaia-Durango taldearen aurtengo argazki ofiziala.

**> JOSEBA DERTEANO**

Italiako Giroak gonbidapena luzatu dio Bizkaia-Durangori, eta Jon Elorriagak zuzentzen duen taldeak gonbidapena onartu eta ekainaren 30ean hasiko den Giroan parte hartzeko asmo sendoa du. Baina emakumeetan gaur egun dagoen itzulirik garrantzitsuenean parte hartzeak 20.000 bat euroko gailuzko dakarrela kalkulatu dute eta finantziazioa bila dabilta.

“Giroari ezin diogu ezetzikan esan”, adierazi du Elorriagak, “gure arazo ekonomikoak ez dira konpondu, baina gaur egun

dagoen itzulirik garrantzitsuena da Giroa”. Behar balute, denboraldi osoari begira antolatutako aurrekontua moldatuko lukete; abuztuko edo iraileko lasterketa batzuetarako aurreikusitako dirua Girora bideratuko lukete, lasterketa jakin batzuk baztertu edo, gutxienez, kolokan utzita.

Baina Bizkaia-Durangoren helburua denboraldi osoa lehia-tzea da. Ondorioz, Giroan parte hartzeak eragin dien gaitasunari aurre egiteko hainbat ekimen ipini dituzte martxan. Alde batetik, hainbat enpresatan atea jo dutela dio Elorriagak. Beste-

tik, txirrindulariak ere ez dira egonean egon. Denen artean, buruari eragin eta zozketa bat abiatu dute dirua batzeko. Anna Sanchisek (Espainiako erlojupeko eta errepideko txapelduna 2012an) bizikleta denda bat duela aprobeztatuta, Campagnolo Bora One gurrupilak zozkatuko dituzte. Zozketan parte hartzeko oinarriak honako webgune honetan daude: [bicicletassanchis.com](http://bicicletassanchis.com).

Bestalde, Emakumeen Biran lehenengo euskalduna izan zen Bizkaia-Durango Ane Santes-teban. Bira Emma Johansson suediarrek irabazi zuen.

## Taldeakako erlojupekoan berriz irabazi du Beste Alde taldeak

Taldekako erlojupean lehiatutako azken lasterketa biak irabazi dituzte: Butroen eta Arabako Itzulian

Gazte mailako Beste Alde Orue eskola txirrindulari taldea espezialista bihurtu da taldekako erlojupekoan. Orain asteburu bi, Butroeko erlojupekoa irabazi zuen, eta joan zen asteburuan, Arabako Itzulikoa. Gartzten Ele-

jabarrieta, Adrian Sainz, Jon Munitxa, Markel de la Fuente, Aritz Hernandez eta Beñat Unamunok osatu zuten Araban (Caicedo Yuso-Gesaltza Añana) irabazi zuen seikotea. Taldekako lan handi horri esker, Aritz

Hernandezek liderraren maillot horia defendatu zuen Izarran hasi eta amaitu zen arratsaldeko sektorean. Etapa horretako ihesaldian sartu, laugarren helmugaratu eta lidertzari eutsi zion.

Domekan, Arabako Itzuliko azkenengo lasterketan (Gesaltza Añana-Gesaltza Añana), Hernandezek zein talde osoak gogorlan egin zuten arren, ezin izan zioten maillot horiari eutsi, eta Umpro taldeko Oskar Malaxetxebarriarentzako izan zen azken garaipena.

**> GIMNASIA ERRITMIKOA**

## Uztaik lorpenez betetako denboraldia itxiko du biharko erakustaldiagaz

Uztai gimnasia erritmikoko taldeak erakustaldia eskainiko du zapatuan, 11:00etan, kiroldegian

**> J.D.**

Uztai gimnasia erritmikoko taldeko gimnastek erakustaldia eskainiko dute zapatuan, 11:00etan, Durangoko Landako kiroldegian. Lorpenez betetako denboraldiari amaiera emango diote horrela.

Gaztetxoenetatik nagusienetara, hainbat emaitza aipagarri lortu dituzte. Aurten, Ester Ferrék, Sara Sendinok, Ainhoa Romanek eta Itsaso Zubiak osatutako nagusien taldea hirugarren sailkatu da Euskadiko Txapelketan, eta gainera,

Bizkaiko txapelketa irabazi du. Sara Sendinok Euskadiko txapelketa irabazi du bakarka, eta txapelketa berean, baina amateurretan, txapeldun geratu dira Leire Sendino, Meritxel Mardaras, Jone Serrano eta Ainara Rueda.

Bizkaiko eskolarteko jokotan eta kimu mailan, Nerea Unzuetak eta Irati Fanok finalerako sailkatzea lortu zuten, eta beste hainbeste lortu zuten Nerea Morenok eta Julene Grandek haur kategorian eta kadeteetan.



Durangoko Uztai taldea Euskadiko txapelketan.

**> ERRUGBIA**

## Errugbi Eguna ospatuko dute bihar, Elorrioren

Elorrio Rugby Taldeak egun osoko plana eratu du

**> J.D.**

Elorrio Rugby taldeak VI. Errugbi Eguna antolatu du biharko. Goizean, 12:00etan, errugbi zelaian batu eta umeei ‘rugby tag’ izeneko modalitatean parte hartzeko aukera eskainiko diete. Durangoko eta Elorrioko errugbi eskolako gazteak ariko dira, baina ekimena errugbia probatu gura

duten denei zabalik dago. Ondoren, paella bazkalduko dute.

15:30ean, nagusien txanda izango da, eta hamar bat koadrilek ‘rugby tag’ modalitateko torneo jokatu dute. Urteroko ohiturari eutsiz, afari herrikoiaz amaituko da jaieguna, 21:00etan, plazako pilotalekuan. Txahal erreka afalduko dute 200 bat lagunek.

**A. Urreta** podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien, 10 behea  
48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Aina Urreta Jainaga

**GALLASTEGI**

[gallastegiharategiak@euskalnet.net](mailto:gallastegiharategiak@euskalnet.net)

1955 ean sortua

**EUSKO LABEL**

Baimendutako harategia  
Euskal Okela  
Carniceria autorizada

Zalduasolo, 8  
946 827 038  
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1  
946 812 247  
48200 DURANGO

# ➤ Aisialdia

> AUZORIK AUZO



## Momoitioko San Juan Baseliza, egunpasa gure historiaren sehaskan

Egunpasa egiteko ezin hobeto prestatuta dago Garain, San Juan Momoitioko basiliza: mahaiak, parrillak, iturriak, gerizpea... Baina, aldi berean, balio historiko handiko gunea da

### > JOSEBA DERTEANO

Udako egun eguzkitsuak datozenean, Momoitioko San Juan basilizak eta bere inguruek familia giroan egunpasa lasai eta eder baterako aukera eskaintzen dute. Zuhaitz mardul eta hostotsuen itzalpean dauden egurrezko mahai askotako batean eserita eta parrillako txingarrek bazkari gozoa iragartzen dutela, bisitariak orduak eman ditzake Anboto mendizerrak eta haren magaleko herriek eratzen duten ikuspegi paregabeagaz sorginduta. Behin joan dena, itzuliko da, lehenago edo geroago.

Baina gaur egungo mundu zalapartatsutik ihes egiteko oasi berdea eskaintzeaz gainera, inguru hark balio historiko handia du. Garaiko San Juanen basiliza Momoitioko kofradiaren erdigunea da. XVI. mendearen hasieran berreraiki zuten, baina barruan Erdi Aroko eliza txiki baten zimenduak dauzka oraindik. Eliza hori Momoitioko antzinako herrix-

kan bizi zirenen parroikia izan zen, VIII. eta XI. mendeen bitartean.

### Hilobiak basiliza ondoko landan

Baselizaren inguruko landan hilobi batzuk agertu ziren, eta 80ko hamarkadan egindako indusketek (Garaiko Udalak eta Gerediaga Elkarteak bultzatutako egitasmoa izan zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin) material eta informazio pribilegiatua eskaini zuten. Indusketen emaitzak funtsezkoak dira Bizkaiko eta Euskal Herriko Erdi Aroaren historia ezagutzeko edo arakatzeko.

Sasoi hartako hilobiak ikusgai daude gaur egun basilizaren ezkerrean. Hilobien ondoan argibide-taula bat dago, elizaren eta hilobien inguruko informazioa eskaintzen duena. Horrez gainera, Gerediaga Elkarteak sustatutako Merioaren Ibilbideko interesgune bat denez, informazioa emateko beste panel bat ipini dute basiliza eta hilobiez

gainera, Momoitioko kofradiaren inguruko informazioa ere eskaintzen duena. Beraz, ikusten ari denaren gaineko informazio zehatza jaso dezake bisitariak.

Inguru hark oinezko ibilbideak egiteko aukera ere eskaintzen du. Momoitiotik gorantz doan bidea hartuz gero, Garai herrigunera joan daiteke, ariketa apur bat egin eta bazkalosteko kafea hartzera. Herrigunea ere toki lasaia da, patxadan eta estres barik egoteko leku aproposa.

Momoitiotik beherantz doan bidea hartuz gero, ostera, Iurretara helduko da ibiltaria. Hasieran, sasoi bateko baserriak beste berriago batzuekin tartekatzen dira, eta denen artean Momoitioko auzoa eratzen dute. Belardi, ortu eta ganaduek osatzen dute baserriko paisaia. Tarte hori igaro ondoren, pinadien artean doan aldats maldatsu bat jaitsita helduko da bisitaria Iurretara herrigunera.

## ZER IKUSI



Baseliza ondoko hilobiak.





Iturria eta mahaiak, basiliza alboan.



Durangaldearen ikuspegi paregabea.

laguntzaileak





# GREMIOEN GIDA



## DEKORAZIOA

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guzietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialen, 45 Garaia A - Berriz.  
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21  
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com



## AROTZERIA

**EGUIA s.l.**  
**AROTZEGIA**

- GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46  
Faxa: 94 605 69 06  
**Mug.: 669 655 169**  
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegula.com



## ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO  
Tel.: 94 601 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
urtinga.sil@terra.es

**urtinga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



## GARBIKETA

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goieta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15



## ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

ARGIZTATZE TEKNIKAK  
**MARKIEGI**

Plateruen plaza 4, behea  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com



## LOREZAINZTA

*Jardines*  
**Patxi**  
*Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085



**Profesional onenak zure zerbitzura!**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net

# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea 15, behea • 94 681 64 23  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

### DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarrekoko etxebizitzak alokairuan

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- ARTEKALEA: 8 etxebizitzaren eraikuntza hasiera goaz. 2 logela eta logela bakarrekokoak. Trastelekuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- SAN IGNAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldia eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekuak. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldia eta despentsa. Berriztatuko. 114.000€
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekuak.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia balkoiarekin. Trastelekuak eta garajea.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldia, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukaldia amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALEA: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia amerikarra.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekuak eta frontoia.

### ABADIÑO

- 2 logela, 2 komun, sukaldia-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekuak eta ganbara. Ikusgarria.

### ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldia balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekuak.

## LURSAILAK SALGAI

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lur zati, bakoitzean familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

### ABADIÑO

- Familia biko etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

## BASERRIAK SALGAI

### IZURTZA

- Baserrira salgai lorategi itxiarekin. Ortu eta lursailarekin. Durangotik 5 minutura.

## ERAIKUNTZA BERRIA

- DURANGO-ERRETENTXU: Adosatua salgai, familia bakarrekokoak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab...

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ALLUITZ KALEA: Halla, sukaldia, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- ANDRA MARIA: Halla, sukaldia, jangela, egongela, 2, 3 edo 5 logela, 2 komun eta egongelaxoa.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldia, 2 logela eta komuna.
- ARKOTZA: Halla, sukaldia, egongela, 4 logela, bainugela, komuna eta ganbara.
- ARTEKALEA: Halla, sukaldia amerikarra, egongela, logela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Halla, sukaldia, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- ASTOLA-BIDEA: Halla, sukaldia, egongela, 2 logela, komuna eta balkoia.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldia, egongela, komuna eta 2 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldia, egongela, 3 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldia, egongela, komuna, 2 logela eta despentsa.
- ERROTARITUENA: Estreinatuko. Halla, sukaldia jantzia, 1 edo 2 logela, egongela eta 2 komun. Eskegitokia. Ganbara eta garajea aukeran.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukaldia jantzia, 3 edo 4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldia, 3 logela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldia, logela, komuna eta eskegitokia.
- GALLANDA: Estreinatuko. Halla, sukaldia, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- GALLANDA: Halla, sukaldia, terraza, jangela-egongela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- GOIENKALEA: Halla, egongela, sukaldia, 3 logela, komuna eta trastelekuak.
- IBAIZABAL: Halla, sukaldia, egongela, logela eta komuna. Ganbara eta garajea.
- IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldia, jangela-egongela, 4 logela, 2 komun eta terraza.
- JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldia, 2, 3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa edota trasteleku eta sotoa.
- KOMENTUKALEA: Halla, sukaldia, egongela-jantzia, 3 edo 4 logela eta komuna. Ganbara.
- MONTEVIDEO: Halla, egongela-jangela, 5 logela eta 3 komun. Terraza eta ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldia, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- OÑITURRI: Halla, sukaldia, eskegitokia, sukaldia, 3 logela, egongela-jangela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukaldia jantzia, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekuak.
- TXATXIENA: Halla, sukaldia, despentsa, egongela-jangela eta 3 logela. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldia, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- SAN FAUSTO: Halla, egongela-jangela, 2 logela eta komuna.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldia, jangela-egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### MADALENOSTE



- Estreinatuko. 1, 2 edo 3 logelako etxebizitzak. Askotariko azalera eta orientazioak. Garajea barne. 166.000€-tik aurrera.

### PLATERUEN PLAZA



- 90m2 erabilgarridun etxebizitza Durangoko erdialdean. 3 logela, tximeneadun egongela zabala, 2 bainugela. Garajea eta trastelekuak.

### SAN MARTIN ATARIA



- 5. solairua ikuspegi ederrekin. 3 logela, egongela, sukaldia ekipatua, bainugela, komuna eta 2 balkoi. Igogailua.

### ATXONDO



- Adosatu ikusgarria salgai. 60 m2-ko lorategia, txokoa eta garajea. 5 logela, 2 bainugela eta komuna.

### ABADIÑO



- Harrizko familia bakarrekoko etxebizitza. Erdialdean. 2 solairu eta kubieta. Erreformatzeko. 139.000€.

### NOJA



- Zonalde ezberdinetan kokatutako etxebizitza eskaintza zabala.

**Durangalde osoan etxebizitzaren aukera zabala dugu, 50.000 eurotik aurrera.**  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

## ERAIKUNTZA BERRIA

- ZALDIBAR: Kurutzear plaza/Solonagusia. Garajea eta trastelekuarekin. Logela eta komuna: 118.000€. 2 logela eta 2 komun. 138.000€. 3 logela eta 2 komun. 178.000€. BEZ barne.
- MAÑARIA: Etxebizitzak estreinatuko. 189.500€.
- IBAIZABAL: 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekuak barne. 247.000€-tik aurrera.
- DURANGO: ETXEBIZITZAK TERRAZAREKIN. 1,2,3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO: Estreinatuko. 2 eta 3 logela. 30 m2-ko terraza. Garajea eta trastelekuak.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- IURRETA: 3 logela eta egongela. Despentsa.
- ELORRIO: 3 logela eta egongela. Trastelekuak. Ikuspegi ederra. 104.000€.
- ARANDOÑOTORRE: 100 m2. 3 logela. Terraza.
- MADALENOSTE: 3 logela, 2 komun eta egongela. Trastelekuak. 256.000€.
- IURRETA: Aukera. Maspe. 3 logela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Igogailua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 90 m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukaldia eskegitokiarekin. Trastelekuak eta 2 kotxerako garajea.
- IZURTZA: 2 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztatua. 124.000€.
- TABIRA: 3 logela eta 2 komun. Ikuspegi ederra.
- ASTEPE: 95 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekuak. 206.000€.
- MATIENA: 3 logela eta komuna. Eguzkitsua. Berriztatua. 155.000€.
- ANBOTO: 3 logela. 146.000€. Negoziagarria.
- ERDIGUNEAN: 2 logela, komuna eta egongela. Igogailua. Bizitzaren sartzeko prest. 116.000€.
- UNTZILLATX: 108 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara.
- BARRENKALEA: 3 logela eta egongela. Berriztatua. 156.000€.
- ZALDIBAR: 3 logela eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 84.000€.
- BERRIZ: Berrizpeitua. 2 logela. Berriztatua. 136.000€.
- MURUETATORRE: 95 m2. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea aukeran. 240.000€.
- ARTEKALEA: 78 m2. Erdi berria. 2 logela eta egongela. 210.000€.
- ALLUITZ: 2 logela. Ganbara. Garaje itxia. 198.400€.
- IURRETA: 3 logela eta egongela. Balkoia. 50.000€.
- F.J. ZUMARRAGA: 100 m2. 3 logela, egongela eta terraza. Igogailua.
- OÑITURRI: Erdi berria. 80 m2. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- SASIKOA: Trenbide. 95 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- TXATXIENA: 3 logela, 2 komun, sukaldia eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea.
- MONTEVIDEO: 3 logela eta egongela. Igogailua. Ganbara. 140.000€.
- IURRETA (Dantzari): 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua. Igogailua.
- MURUETATORRE: azkeneko pisua. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra.
- DURANGO: txaleta. 400 m2. Garajea. Lorategia.
- BASERRIA: 421 m2. 7.500 m2-ko lursaila. 390.000€.
- ATXONDO: Txaleta. 200 m2, 2 solairutan banatuta. 4.000 m2-ko lursaila.



# AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 15ean, 18:00etan, Iurretako San Migel plazan

## Libertia

Kalez Kale jaialdiaren barruan eskainiko du Hortzmuga taldeak familia guztiarentzako 'Libertia' ikuskizuna. Txotxongiloak libre izan daitezkeen mundu bati buruzko kontakizuna da, eta Dori, Arthur eta Otto dira protagonistak.

## Antzerkia

### :: ELORRIO

Ekainaren 15ean, 18:30ean, **ZapAAAta bila?!**, San Jose ermitan.

Ekainaren 16an, 12:30ean eta 18:30ean, **ZapAAAta bila?!**, San Jose ermitan.

### :: IURRETA

Ekainaren 14an, 18:00etan, **Bapatean zirkoa**. 20:30ean, **Ametsetan bizi**, Amilburun. Kalez Kale jaialdia.

Ekainaren 15ean, 18:00etan, **Libertia**, San Migel plazan. 20:30ean, **Drumbreak**, Amilburu plazan. 21:00etan, **Organik**, Amilburu plazan. Kalez Kale jaialdia.

Ekainaren 16an, 13:00etan, **Marsel magoa**, Dantzari plazan. Kalez Kale jaialdia.

## Musika

### :: DURANGO

Ekainaren 14an, 17:30ean, **Rock Izar eskolaren gala**, Plateruenean.

Ekainaren 15ean, 22:00etan, **Vargas Blues Band + Laumono**, Plateruenean.

Ekainaren 20an, 19:00etan, **Soinua musika eskolako ikasleen emanaldia**, Plateruenean.

### :: IURRETA

Ekainaren 21ean, 10:30ean, **umeen danborrada**. Ondoren, **kalejira Kalean Txaranga taldeagaz**. 18:30ean, **Marmara Dixieland Band**, Dantzari plazan.

### :: ZALDIBAR

Ekainaren 14an, 23:00etan, **ZZ Blues Band**, gaztetxean. Gari Rock elkartearen lehenengo musika jaialdia.

Ekainaren 15ean, 17:30ean, **Los Galerna**, gaztetxean. 23:00etan, **Temblores + AZ/DZ**, gaztetxean.

## Euskal Astea

### :: DURANGO

Ekainaren 15ean, 17:00etan, **XII. zesta punta txapelketaren finalak**, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. 19:00etan, **kalejira**. 20:00etan, **Tabira musika banda**, **Elgoibarko dultzaineroak**, **Debako Aitzuri abesbatza** eta **Durango Orfeoia**, Andra Mariko elizpean.

Ekainaren 16an, 20:00etan, **Las Durangas ikuskizuna**, Andra Mariko elizpean.

## Erakusketa

### :: BERRIZ

Ekainaren 14ra arte, **Zeramika ikastaroko erakusketa**, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

Ekainaren 23ra arte, **Fotograbatua**, Arte eta Historia Musean.

## Dantza

### :: MAÑARIA

Ekainaren 15ean, **Ezpatadantzari Eguna**. 19:30ean, **Dantzari Dantza**, **Soka dantza** eta **Erregela** emanaldia. 21:30ean, **lagun arteko afaria**, **jarraian**, **Ansoregi taldeagaz erromeria**, plazan.

## Jaiak

### :: DURANGO (Munduko Arrozak)

Ekainaren 15ean, 11:45ean, **txalaparta**. 12:00etan,



Ekainaren 15ean, Zaldibarko Gaztetxean, 23:00etan

## AZ/DZ

Gari Rock elkarteak antolatutako I. musika jaialdian joko du AC/DC taldearen kantak bertsionatzen dituen Irungo boskoteak. Temblores taldeak zabalduko du musika jaialdiaren biharko hitzordua.

**aurkezpena**. 12:15ean, **tailerrak**, **kontzertua**, **pailazoak...** 13:00etan, **batukada**. 14:30ean, **bazkaria**. 15:30ean, **ipuin kontalaria**. 16:00etan, **diploma banaketa**. 16:30ean, **Senegal eta Gineako dantzak**. 17:00etan, **Seafoid taldearen kontzertua**. 18:00etan, **txokolatada**.

### :: MALLABIA (Gerea)

Ekainaren 14an, 19:00etan, **donien-atxa ipintzea**.

Ekainaren 15ean, 16:00etan, **txokolatada umeentzat**. 17:00etan, **briska txapelketa**.

Ekainaren 16an, 11:00etan, **meza**. Ondoren, **bertsolariak**, **Gazte Alai dantza taldearen emanaldia**, **herri kirolak**, **umeen jolasak**. 18:00etan, **asto probak**.



## :: DURANGO | ZUGAZA

### 1. aretoa: Trance

Zuzendaria: Danny Boyle

- barikua 14: 19:30/22:00
- zapatua 15: 19:30/22:30
- domeka 16: 19:00/21:15
- astelehena 17: 18:30
- martitzena 18: 20:00

### Las aventuras de los cinco

Zuzendaria: Mike Marzuk

- zapatua 15: 17:00
- domeka 16: 17:00

### ZINEKLUBA

#### Un gran equipo

Zuzendaria: Olivier Dahan

- eguena 20: 20:30

#### Red square concert

Zuzendaria: Mark Haefeli

- eguazitena 19: 20:30

### 2. aretoa:

#### Un amigo para Frank

Zuzendaria: Jake Schreier

- barikua 14: 19:30/22:00
- zapatua 15: 17:00/19:30/22:30
- domeka 16: 17:00/19:00/21:15
- astelehena 17: 18:30/21:00
- martitzena 18: 20:00

### ZINEKLUBA

#### Un gran equipo

Zuzendaria: Olivier Dahan

- eguazitena 19: 20:00

## :: ZORNOTZA

### Resacón en las Vegas 3

Zuzendaria: Todd Phillips

- barikua 14: 22:00
- zapatua 15: 22:30
- domeka 16: 20:00
- astelehena 17: 20:00

## 10 HAMARREKO MENUA

EGUNEKO MENUA 10€ (egunero menu begetarianoa aukeran) / MENU ERDIA 7,50€ / UMEEN MENUA 8€ / UMEEN MENU ERDIA 6€ / ZAPATUETAKO MENUA 13€ / ZAPATUETAKO UMEEN MENUA 10€ / ZAPATUETAKO UMEEN MENU ERDIA 8€ / MENU TXARTELAREKIN MENUA 9€ /



10€  
HAMARREKO  
MENUA







## “Oso jende gutxi dago txarto kantatzen duena”

Lehenengo korua etorri zen, gero erromeria taldea, eta ostean Kantulagun... Egunero kantuan dabil Ugaitz

### > AMAIA UGALDE

Duela hiru urte hasi zuten Kantulagun, lagunartean kantatzeko egitasmoa, Plateruenean. Beñat Aiertzarekin gidatzen du kantu taldea Ugaitz Catalanek. Durangartzen dabilen soraluzetarra da. Musikan murgilduta daroa bizitza osoa.

Hirugarren urtea egin duzue Kantulagunen. Zer moduz zabilzate?

Oso gustura. 40-60 lagun egoten gara, eta jendea oso gustura etortzen da. Beñatek, gainera, gitarra jotzen du, bera da artista.

Askok errepikatzen dute?

Bai. Lehenengo urtean, lau saio egin genituen gonbidatuekin, eta jendeak gehiago eskatu zuen. Orain, beti ez dira etortzen gonbidatuak, baina tartekatuta egiten ditugu gonbidatuen eguna, kaleko Kantulaguna, eta besteetan, Beñatek eta nik bakarrik jarduten dugu. Lantzean behin jendeak esaten digu, “ez ez, abesti hau ez da horrela”, eta guk, “a, ez?”... Hartu-eman handia egin dugu.

Kantari ezagunak gonbidatzen dituzue tarteka. Egon da zuretzako baten bat berezia?

Denetik egon da. Adibidez, Tapia eta Leturia etorri zirenean, oso ondo ibili ginen. Askotatzen zait Tapia eta Leturiaren musika, abesti denak dakizkit, eta asko gozatu nuen; baina euren errepertorioa erakutsi zuten batez ere, eta kanturako tartea faltatu zen. Gero, gogoratzen dut Mikel Markezekin itzel ibili ginela, oso jatorra, eta jendeak oso gustura kantatu zuen. Dokumentxena ere berezia izan zen.



Gurekin ibiltzen da taldean, eta tresna asko jotzen ditu; biolina, gitarra portugesa... Beñatek ere jotzen ditu hainbat. Oso polita izan zen. Publikoa kantuan ibili zen denbora osoan, pilo bat tresnak lagunduta.

Zergatik engantxatzen du taldean kantatzeak?

Abesteak berak, gustuko badaukazu, bete egiten zaitu. Eta beste batzuekin abesten duzunean, gusturago zabilza. Gainera, tartean tresnaren bat badago, ondo entzuten da. Ez da dutxan moduan: berrogei lagun, eta gitarra bat edo beste tresnaren bat; bete egiten zaitu. Ondo entzuten duzu. Eta egia esan, ondo kantatzen dugu. Oso jende gutxi dago txarto kantatzen duena, e? Ahots eskasa eduki dezakezu edo belarri onik ez, baina pixka bat

tentuz kantatuz gero, nahikoa izaten da.

Inork ez du desafinatzen?

Guk agian, bigarren ahotsa egiterakoan-eta! Baina bestela... Eta giro ona dago. Ostegun batean, lagunekin etorri, ardotxo bat hartu, jesarri eta kantuan ibiltzea. Niri izugarritzko plana iruditzen zait.

Erromeria talde batean ere bazabiltza.

Bai, Xero Xieta. Durangon jo genuen behin. Itzelezko erridikulua egin genuen, e... Gure kontzerturik eskasena izan zela uste dut. Gitarra gabe etorri ginen, gero inork ez zuen dantzarik egiten... Beno, durangarrek ez zuten dantzarik egiten. Soraluzeke batzuk etorri ziren, eta eurek bai!

Musika arloan ibili zara beti.

Magisteritza musikala ikasi nuen, beti gustatu izan zait. Musika eskolan tresnaren bat jotzen ikasi nuen, eta abestea asko gustatu eta koruan ere ibili nintzen. Sasoi batean gauza askotan ibili nintzen; erromeria taldean, antzerkian ere bai... eta korua utzi egin nuen. Orain, Kantulagunekin gustura nabil, mantentzen dut nire “monoa” eszenatokira igo eta kantatzeko.

Lau urteko umeen irakaslea zara. Eurekin asko kantatzen duzu?

Nire ume gizajoak! Egun osoa kantuan pasatzen dut. Baina gustura ibiltzen gara. Gitarra pixka bat jotzen dut, eta harekin ere abesten dugu.

### Zer jarrera izan?

Ukatu ezina dogu bizitzan hainbat gauza dagozela ezinbestekoak edo behar doguzanak. Ezin dogu gorputz barik bizi edo gorputz-atal guztiak ez badira ere, eurentariko gehienak barik bizi. Gizakiak izateko, guztiz preminazkoak doguz, baita, pozak edo atsekabeak, pentsaerak, gurariak, eskubideak... Honeen artean sartuko neukez jarrerak, gazteleraz “actitudes” deiturikoak: hau dela, bestea dela, honen aurrean besteaurrean aurrean, hartzen doguzan jarrerak.

Ezin dogu esan “nik honen edo bestearen aurrean ez dot jarrerarik”. Bat edo beste, zeuk gura dozuna, baina ezin zara egon jarreararik izan barik, eguzkitan bagagoz kerizpe barik geratu ezin dogunaren antzera. Honen edo horren alde egongo zara. Honen edo horren aurka egongo zara. Honen edo horren aurrean “hor konpon, niri bost ardua” esango dozu. Baina, gauza jakin baten edo bestearen aurrean ez dozu “ez dot jarrerarik” esaterik. Noizean behin, hauteskundeetan lez: baietza, ezetza, zuria edo ez hautatzea.

Garrantzi handikoa da zer jarrera hartzen dogun. Zergatik? Bizitzako une bakoitzean, jarrera hau izan, bestea izan, jatorragoak edo gaiztoagoak izan geintezkezelako, eta mesede handiak edo kalte handiak egin daikeguzelako, zoriontsu edo zoritxarreko egin daikeguzelako besteak, bizi-poza edo atsekabea emon deikiegulako ingurukoei.

Zelako aldea argiak, jakingurakoak, ondo oinarritutakoak, zabalak, besteena ulertzekoak eta onartzekoak, umoretsuak, besteei laguntzekoak... izan gure jarrerak, edo osterantzekoak izan!

## Batxilergoak eta Zikloak



Biharko Beharretarako

Abasolo 6 Durango, 48200 Bizkaia.  
Tel. 94 681 00 58, Fax. 94 620 06 38

www.maristak.com | san-jose@maristak.com

Matrikulak  
Batxilergoa

Ekainaren 20tik  
uztailaren 5era

Matrikulak  
Zikloak

Uztailaren  
8tik 12ra



ELKAR

Ekoscan

HETEL

